



BIDEGI

Gipuzkoako  
Azpiegituren Agentzia

Agencia Guipuzcoana  
de Infraestructuras

ASTI AUZOA 631 - A



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



## AZPIEGITURAK ARDATZ

Katty Nevado, Bidegiko kudeatzailea,  
errepideetako proiektuez solasean 04



## UROLA Autoeskola

Bustinzuriko Errebala, 3 atzea  
Tel. 943 81 26 66 • 20730 AZPEITIA  
[www.urolaautoeskola.com](http://www.urolaautoeskola.com)

Adr eta Cap kurtsoak  
Gidabaimen guztiak  
Gidabaimena euskaraz  
ateratzeko aukera

**ONDO PASAU  
SANINAZIYUEK**



## Mielek badaki zer axola zaizun

Eta horregatik nahi duzuna emateko prest dago: emaitza ezin hobeak beti, guztiz bermatutako iraunkortasuna eta ospe handiko marka baten kalitatea.

Eta guztia **prezio erabat sinestezinean**. Erresistitu egingo zara?

Etor zaitetz bisitan eta ezagutu Mieleren udako promozioaren abantailak.

## Ondo pasau Saninaziyuek eta Andramaixek!

Azkoi-Azpeitiko Banatzaile Ofiziala:

**MILAR**  
**LARRAMENDI**

Julio Urkijo, 16  
20720 Azkoitia-Gipuzkoa  
Tel.: 943 851 897

Made in  
Germany

Ontzi-garbigailua

**599€**

Garbigailua

**799€**

Bero-bonbazko  
lehorgailua

**999€**

**Miele**  
IMMER BESSER

# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarrria@uztarrria.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 153.a (2013ko abuztua)  
**Urtea.** XIV.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685 730792 /  
 oalegria@uztarrria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilerio  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** A. Agirrezabala  
**Webgunea.**  
[www.uztarrria.com](http://www.uztarrria.com)

**Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak** (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia




azpeitia udala

**Uztarririk Bai Euskarari**  
**Oharra.** Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



## 2013KO ABUZTUA UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



### iritzia

**Kritika.** 'El gran caminante' liburuzaz, Luix Juaristi **15**

### mamia

**Klik!** 1990eko hamarkadako San Inazio festak **16**  
**Nagusia.** Zezenketak eztabaidagai diren garaian, zer-nolako osasun dute

Azpeitian? **20**  
**Aisia.** Oporrak pasatzeko etxea trukatzeko duten familien esperientzia **24**

### jakiteko

**Akordatzen?** 1983ko eta 1953ko uholdeen 30. eta 60. urteurrenak dira aurten. **34**

**Ba al dakizu ALde zaharra biziberritzeko ekimenen baitan, ErdikaLeko Lokal hutsak argazkiekin apaintzen hasi direLa?** **Uztarrria**

**egin zaitez bazkide Uztarrian** **943 15 03 58**

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu**, **CD 1** eta **biografiak txikiak** ateratu ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**1.060** bazkide **30** euro dira **gara** Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko deni.

**urtean.** 110.000 euroko aurrekontua dugu 2013an.



**Liburuxka biografikoak.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpirtarte 'Kabra', Enrique Zurutuza

# KATTY NEVADO

Bidegiko kudeatzailea

“Pertsona adituz osatutako taldea gara”

Bidegiko zuzendari postuan urtea beteko du datorren irailean. Enpresaren eta AP-1, AP-8 eta GI-632 errepideen kudeaketaz aritu da. ✍️📍 A. Agirrezabala (Zarautz)

**E**npresen kudeaketan esperientziaduna, Bidegiko kudeatzaile postura heldu aurretik eskarmentu handiko ibilbidea du egina. Enpresa eta Ekonomia Zientzietan lizentziaduna da, Deustuko Unibertsitatean eta Gestio Aurreratuan masterra du. Hogeitaz gora urteko esperientzia du, batez ere enpresa pribatuetan: Hamar urtez enpresa multinazionaletan aritu zen, munduan zehar bidaiatuz. Bidegiko lan-eskaintza, berriaz, Matia Fundazioan zuzendaritza nagusi karguan zegoela jaso zuen. Irailean urtea bete du kargu berrian.

**Azpeitiarra zara izatez, baina urte batzuk badira Azpeititik kanpo bizi zarela. Mantentzen al duzu harre-**

**mana Azpeitia eta azpeitiarrerekin?**

Azpeititik kanpo bizi naiz bai, baina Donostian, esan nahi dut ez dela hain urruti, ez naiz Australiara joan. Lantokitik hurbilago egoteko joan nintzen Donostira, baina Azpeitiarekin harreman handia dut. Familia, lagunak... denak han mantentzen ditut. Nire gurasoak ere Donostian bizi dira; senarra ere azpeitiarra da eta haren familia osoa Azpeitian bizi da. Eta semeak ere azpeitiarra dela dio. Azpeitian edozer gauza dagoela, bertara joaten gara.

**Saninazioetan, festetan... Azpeitira etortzeko ohiturarik ba al duzu?**

Saninazio bezperatik hasita, txupinazotik, egunero etortzen gara,

## ||| DATUAK ||||||||||||||

||| **Jaio.** 1969ko otsailak 5.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Donostia. ||| **Lanbidea.** Bidegiko kudeatzailea.

goizetik hasi eta iluntzera arte. Umea dugunetik, geure etxean erretiratzeko gara, Donostian. Egia esan, zalantzak ditut, sansebastianak ala saninazioak, zein ditudan gustukoak. Gaztetan danborradan ateratakoa naiz, eta senarra oraindik ere ateratzen da danborra jotzen.

**Irailean urtea egingo duzu kargu berrian. Zer moduz?**

Oraindik denbora gehiegi ere ez daramat, baina nahikoa proiektua ezagutu eta etorkizunera begirako ardatz nagusiak zeintzuk diren zehazteko. Egia esan, aldaketa handia izan da, baina enpresa eta

sektore berri bat ezagutzeko erronkari gogotsu heldu diot.

**Bidegiko zuzendari izateak zer eginkizun, betebeharrak ditu?**

Lehenbiziko betebeharra da Bidegiren proiektua definitzea, diseinatzea eta adostea administrazio kontseiluarekin eta, jakina, Diputazioarekin, eta proiektu hori aurrera eramatea. Beste arlo oso garrantzitsua da diru publikoa kudeatzen dugula eta, alde horretatik, gipuzkoar guztiei bermatu behar diegu diru publiko hori eraginkortasunez kudeatzen dugula. Horiek dira bi ardatz nagusiak.

**Bidegiren kudeaketaz asko hitz egin da, azkenaldian. Aurreko agintaldian zegoen**



Katty Nevado, Bidegik Zarautzen duen egoitzako bere bulegoan.

### **EAJren eta orain dagoen BILDuren arteko gatazka politiko iturri bilakatu da. Egoera horrek nola eragiten dio zure lanari?**

Eragina zerbait badu, administrazio kontseiluan ezin dugu ukatu talde politikoak daudela, eta Bidegiren azken erabakiak administrazio kontseiluan hartzen dira. Baina, Diputazioarekin elkarlanean, pertsona adituz osatutako lan-taldea gara, eta taldean hartzen dira eguneroko kudeaketaren erabakiak. Eta hor arlo politikoak ez du hainbesteko eragina. Lan-taldean lana egiten saiatzen gara, eta eguneroko erabakiak kudeaketa ikuspuntutik hartzen dira, ez ikuspuntu politikotik. Bereiztuta daude, argi eta garbi.

### **Bidegiko orain arteko zure esperientziaz zer balantze egingo zenuke?**

Oso aberasgarria izan da. Den-

bora honetan diagnosi sakon bat egin dugu Bidegiren egoera zein den zehazteko, eta nahiko argi definituta ditugu Bidegiren iraunkortasuna eta etorkizuneko proiektua bermatzeko lanerako ardatzak eta hartu beharreko erabaki estrategikoak zeintzuk diren. Eta erabaki horiek hartzen ari gara. Horretan ari gara lanean. Garrantzitsua da jendeak jakitea gure helburua dela Bidegik proiektu iraunkor bat izan dezan bermatzea eta etorkizunera begira konpromiso guztiak betetzea. Eta, gaur egun, gauzak dauden bezala utzita, erabakirik ez baldin bada hartzen, hori ez dugu bermatuta.

### **Krisiak Bidegiri ere eragingo zion, ezta?**

Bai, zuzenean. Krisia hasi zenetik, 2007tik, urtero-urtero trafikoak beheranzko joera du. Ibilgailu arinen trafikoak aurtan, halere,

egonkortzera egin du, eta horretan eragin positiboa izan du iazko abenduan 25 euroko muga duen ordainsaria jartzeak. Lehen, pertsona batek egunero Azpeititik Donostira bidaiatuta, hilean 70-80 euro ordaintzen zituen; gaur egun, 25 euroko muga du eta neurri hori aurrezki handia da AP-8 eta AP-1eko erabiltzaileentzat. Baina ibilgailu astunetan

“Diru publikoa eraginkortasunez kudeatzen dugula bermatu behar da”

“Handia izan da aldaketa, baina erronkari gogotsu heldu diot”

oraindik ere beherakada hori antzematen da, produkzioari lotuta dagoelako. Neurri hori hartu denetik, lurraldeetan zegoen trafikodesoreka pixka bat berdindu egin dugu. Esaterako, N-1 eta inguruko errepideak ordaindu beharrik ez daudenez, trafiko handia izaten zen, eta hori zeozer orekatu egin dugu.

### **Erabiltzaileen iradokizunak eta jasotzen al dituzue?**

Bidegirekin harremanetan jartzeko kanal desberdinak ditugu: erabiltzaileen arretarako telefonoa eta webgunea. Horien bidez jasotzen ditugu kexak, iradokizunak, erreklamazioak... Denak aztertzen dira, denak erantzuten dira eta batzutan hobekuntzarako erabiltzen ditugu.

### **Agintaldi honetan egin asmo zen proiekturik geratu al da gauzatu ezinda krisiagatik?**

Ez krisiarengatik. Egun, Bidegik zor handia du, 900.000.000 eurokoa, eta zor hori kreditu kontratu batean dago formalizatuta. 22 urteko kreditua da, 2011n sinatu zen eta, beraz, 2033ra arte lotzen gaitu. Kreditu-kontratu sinatze-ko plan ekonomiko-finantzario bat egin zen eta hor jaso ziren kredituaren epean Bidegik bete beharreko konpromiso ekonomiko guztiak, bildutako diruari, kostuei eta inbertsioei dagokienez. Kontratuak nahiko baldintza murriztaileak dituzenez, Bidegiko erabakiak mugatzen ditu. Etorkizunera begira, obra garrantzitsu bat dugu bukatzeko, Deskargakoa. Gu orain Urretxu-Antzuola zatia ari gara egiten eta Diputazioak Antzuola-Bergara zatia bukatuko du. Horrekin GI-632 guztia bukatuta egongo da. Hori da Bidegiren azkenengo obra handia. Eta kredituan zehazten da obra ordainsariekin irekita 2015eko apirilean egongo dela. Obra horrez gain, kreditu-kontratuaren aurreikusten dira urteroko beste inbertsio txikiagoak ere, egun Bidegik kudeatzen dituen errepideak –AP1, AP8 eta GI-632 Beasain-Bergara– hobetzen eta mantentzen jarraitzeko.

### 900.000.000 euroko zor hori zeren ondorio da?

Urteotan, Bidegik 1.200 milioi euro inbertitu ditu errepideetan, obrak egiten eta abar. Inbertsio horiek egiteko 300 milioi euro berak sortutako errekursoetatik ordaindu ditu, eta gainontzekoa ordaintzeko aipatutako kreditua sinatu zuen 2011ko apirilean, 900 milioiko kreditu bat. Obra horiek gainkostu handiak izan zituzten eta, ondorioz, 286 milioiko desbideratzea izan zen. Ondo-

rioz, gaur Bidegiren zorra handiago da; desbideratzerik gabe 614 milioi eurokoa izango litzateke.

### 2033. urtera arte, beraz, lotuta zaudete, kreditu-kontratu hori medio.

Hala da, eta 2015etik aurrera Bidegik arazo larri bat du eta kreditu kontratuaren konpromisoak betetzeko gai ez litzateke izango. Izan ere, orain arte, batik bat, interesak ordaintzen aritu gara, baina 2015etik aurrera hasiko gara oso indartsu kredituaren amortizazioa ordaintzen. Orduan, ordaintetarako asko igoko dira eta trafikotik bildutako diru kopuruak pixka bat behera egiten badu edo, behintzat, ez bada igotzen kontratuaren aurreikusita zegoen bezala, arazoak izango ditugu kreditu-kontratuaren konpromiso guztiak betetzeko. Nolanahi ere, etorkizuneko proiektua argi dugu, arlo askotan lanean ari gara eta neurriak hartuko ditugu 2015ean Bidegi iraunkorra izateko. Eta hartu ditugun neurriak atzera ez ditugu botako. Guk uste dugu 25 euroko neurri hori oso positiboa izan dela eta horri eutsi egin behar zaio. Hori ez dugu ukituko.

### Zertan esango zenuke antzeman dela errekurtsu guxtiago izatea?

Inbertsioetan, batik bat. Hasieratik garbi izan dut diru publikoa efikaziaz kudeatu behar dela, eta ikuspegi hori baldin baduzu, hobekuntzarako beti dago marjina. Horrek ez du esan nahi, nahiz eta baliabideak eduki, horiek nolahi gastatu behar direnik. Guk Bidegin konpromisoa dugu barrura begira, koordinazioa, eraginkortasuna eta azpiegiturak hobetzeko. Barrura begira, arlo

guztietan eta etengabe, hobekuntzara begira kudeatu behar dugu, arlo guztietan: kontratazioan, ekonomiaren-arloan, pertsonetan... Kanpora begira, berriz, erabiltzailearekiko orientazioa hobetu behar dugu; nik uste dut hobekuntzarako informazio asko jaso dezakegula. Bestalde, Diputazioarekin ere koordinazioa hobetu behar dugu. Bai Diputazioak eta bai Bidegik errepideak kudeatzen ditugu eta hor sinergia asko lortu dezakegu. Beste agente guztiakin ere eseriko gara eta saiatuko gara horiekin guztiakin harremanak izaten, enpresako arlo guztiak ahal den eta ondoena kudeatzen saiatu behar dugu. Krisia dela eta errekurtsoen jaitziera trafikoa antzeman dugu, batik bat. Trafikoa jaisten bada, Bidegiko diru-bilketa jaisten da eta hor kredituaren konpromisoak ditugu. Eta hori betetzen ez badugu, urteko inbertsioak ere pixka bat jaitsi egiten dira, bi alorrek lotuta doaz.

### Une honetan, zenbat langile zaudete Bidegin?

Bidegin 15 langile gaude, baina azpikontratatuta dugun Bidelan enpresan 300 langile ditugu. Hor daude errepideetan lanean ikus-

ten ditugun langile guztiak: errepideen kontserbazioaz eta mantentzeaz eta bidesaria kobratzeaz arduratzen diren beharginak, alegia. Proiektu berriak, inbertsio handiak... horiek guztiak Bidegitik bideratzen dira, baina eguneroko jarduerak, lehiaketa bidez kontratatutako enpresatik gauzatzen dira, eta enpresa hark du langile kopuru handiena. Nolanahi ere jarduera guztiak Bidegik zuzentzen ditu. Enpresa-eredu nahiko berezia da. Bidegi 2003an sortu zen Diputazioaren tresna bezala; Diputazioak aukera izan zezan inbertsioak eta aurrera ateratzeko eta errepide horiek egiteko behar ziren kredituak Bidegik bere gain hartzeko, Diputazioaren zorpe-tzea areagotzea ekiditeko.

### Azpiegitura aldetik Azpeitiko errepide-sarea nola ikusten duzu?

Bailara berezia eta ederra dugu, baina mendiz inguratuta gaude. Orografia ere nahikoa zaila dugu, errepide-sare indartsu bat edukitzeko. Hor betidanik izan dugu irteera natural bat kostaldera eta duela urte batzuk beste irteera bat egin ziguten Bilbo aldera, Azkaratik. Beste irteera guztiak mendiz mendi ditugu: Bergara joateko Elosua, Beasainera joateko Mandubi, Tolosara joateko Urraki edo Errezil... Nik uste dut, nahiz eta errepide berriak ez egin, saiatu garela errepide-erabiltzaileari pixka bat gauzak errazten eta 25 euroko neurri horrek azpeitiarroi ere pixka bat lagundu digu sare nagusiko errepideak erabiltzeko. Uste dut, urte hauetan, inbertsio edo proiektu estrategiko handiak errepideetan ez direla aurreikusten, baina hori ez da nire arloa.\*

“25 euroko mugetuen ordainsaria jartzeak eraqin positiboa izan du”

“kredituari erantzuteko arazo Larria du Bidegik, 2015etik aurrera”



# Gure festak

**G**ustura ospatzen ditugu, harro. Urtean zehar mordo bat ditugu baina egutegian bereziki markaturik ageri dira azpeitiarron agendan, Saninaziyuek. Eta ziur urte askotan ere horrela jarraituko dutela, herriko festa nagusiak izaten. Ba ote?

Era berean, ez dut zalantzarik, gutako asko, noizbait jarri dela pentsatzen Gipuzkoa eta Bizkaiko patrioiak zenbateraino merezi duen ohore hori. Ba al dakigu zer ospatzen dugun egun horietan, zeini egiten diogun omenaldia?

Nahiz eta bere historia guztia ez ezagutu, inoiz ez zait gustatu Loiolako Iñigo Gaztelarekin nafarren aurka aritu izana. Gaztelak 1512an Nafarroa Garaia indarrez, armez, hartu eta konkistatu ondoren, Iruñean eta beste hainbat eremutan euren bizimolde eta instituzioak inposatu zituzten, menpekotasunari aitortza egiten ez zieten nafarrak bortxatuz, egurtuz, erahilez. Era batera edo bestera bizirik dirauen usadioa...

Herri aske bezala inoiz izan bagara, Nafarroa izan da gure herria. Bada, 1521ean, etsaiak bortxaz lapurtu zutena berreskuratzeko altxamendua eman zenean, han zen Gure Iñigo Loiolakoa, beste hainbatekin batera, Gaztelaren esanetara sutsuki inposaketa defenditzen. "Oñaztarren mutila han aurrean doa, gaztelaren pausotik oina ta zangoa", abestiak dioen bezala.

Eta hortik aurrerako istorioak, Jesusen Konpainiaren sortzea, hango lehen Jenerala izatea eta abar, ez daude hemen aipatu nahi dudanarekin lotuak. Kontua ez da santuen festak ospatzea edo ez (nahiz eta horrek ere eztabaida ederra sortuko lukeen), baizik eta gure Iñigok eginiko balentriak batzuentzat, eta traizioak besteentzat, merezi ote duen, konkistatik 501 urtera, herriko agendan horrelako festa.

Herriak eman duen pertsonaia historiko nagusia izan daitekeen arren, mundu mailan herriaren eta Loiolaren izena zabald



||||||| **hodei mendinueta** |||||

## || Inoiz ez zait gustatu Loiolako Iñigo Gaztelarekin nafarren aurka aritu izana

arren, etxeokak kanpokoengatik aldatu zituena gizon hark. Historikoki gure herriak bizi izan dituen hamaika gatazken artean aro garrrantzitsuenetakotzat har dezakegunean, inbasoreaz elkar hartuta jardun zuen anai-arreben aurka. Gogoan hartu, beraz, gatazkaz hitz egiten dugunean, honelako pertsonaiek, eta ez aragoi, gaztela edo andaluziarrek saldu zutela euren herria, hasi zutela gatazka.

Izan pribilegioengatik, diruagatik edo amorrazioz, auskalo, baina gure askatasuna berreskuratzeko 1521 saiakeraren aurrean ia bere bizitza emanez defendatu zuen gaztelaren konkista. Ez dut uste bere izana urtero gogoan hartzea merezi duen pertsona bat denik, bera bezalakoek etsaia defendatzearen eragina bost menderen ostean hainbeste pertsonak pairatu dutenean: handik hona, gure herriaren historia, odolez idatzi baita, gudaz eta borrokaz. Sufrimenduaren itzala, 500 urteko ibilbidean.

Atera kontuak, baina ziur nago beste zenbait herritarrek egin dutela Loiolako Iñigok baino gehiago, edo hobeto behintzat, Azpeitiko festa nagusien izena berea izateko. Ez dut uste herritarren miresmena irabaziko lukeenik garai hartan izan beharrean Karlista-detan liberalekin, Gerra Zibilean frankistekin, edo Gerra Zikinean GALEkin ibili izan balitz... edo



# Gozatu udaz!

**U**ztaila amaitzeaz da festa usaina nabari da Azpeitian, egun gutxi gertatzen dira Saninaziyotako, giro ederrak hasi dira, eguzkia, hondartza... eta orain bai esan dezakegula, uda iritsi da! Oporrak hartzeko amorratzen egongo zarete asko, beste asko lanerako gogoarekin, beno, guztioi ere zorte onena opa dizuet, gozatu oporrez, inguruko ez, bazterrez, festaz, musikaz, baratzaz, mendiaz, kostako herriez, arbolen itzalez... benebenetan.

Aurtengo nire oporrei dagokienez, poltxikoan zulo handi samarra dut aspaldian, haria eta orratzarekin konpondu ezin den horietakoa eta ezin izango dut asko bidaiatu, oso zalea naizen arren. Hegazkinarekin urrutira joatekoetakoa ez naiz, ezta hegazkin zalea ere, pentsatzen jarrita, eginiko hegaldi luzee-na Murtziatik Londreseko bidaia izan zen orain dela pare bat urte. Kontua da beldurra ematen didala hegazkinak, ez da panikoa ere baina lurra hanka azpian sentitzea atsegin eta behar dudala uste dut, ohitura faltagatik ere izango da seguruenik. Kontuak kontu, dirua izanda ere kristoren pereza emango lidake oraintxe bertan hegazkinez Asia hurrutera joateak, adibidez.

Trena da gehien atsegin dudana, liburuxko bat irakurriaz, edo leihotik begira lasai joan zaitezke patxadan eta aspertuz gero tabernara bueltatzea. Autobusei beti usaina hartzen diet eta estuak dira.

Topikoak topiko, Euskal Herrian leku eder-rrak badira eta Espainia eta Frantzia hortxe daude bestela. Espainian, adibidez, Toledora joatea gustatuko litzaidake, oraindik ez dut zapaldu, baina agian beste urtaro batean, bero gutxiagorekin, udazkenean edo. Galizia aldea ere ez dut ezagutzen, Santiagoko bide-tik pixka bat, hango gaztain basoak buruan il-tzaturik geratu zitzaizkidan.

Udako beroaren ederrena itzala da dudarik gabe. Gero eta atseginagoa dut terrazan, kostako herriren batean adibidez, iluntze al-



||||||| Iosu salegi |||||

||| Udako beroaren ederrena itzala da dudarik gabe. Gero eta atseginagoa dut terrazan zerbeza pinta bat hartzea

dera edo zerbeza pinta bat hartzea ogitarte-ko batekin, lasai eserita eta konpainia onean eta inongo presarik gabe, horretarako lain iristen zaigu ta ez da gutxi!

## Kanpoan jatea

Udan jandako plater ederrenetako bat dator- kit burura, Murtziako kostako herrixka batean hiru lagunek jendez betetako txiringito-jate- txe batean jandako "caldero"-a, paella beza- lakoa zen baina kasu honetan arrozak zatirik ez zuen, xeheturiko itsaskiekin eginiko saltsa- rekin egosia zegoen... ahh.

Beno afaltzera noa sagardo frexkoa irekita dago eta. Osasuna guztioi eta erre gabe ibili! ✨







**ondo pasatu**

Soinindaziyuek

**2013**

uztailak 24, 25, 27, 28, 30, **31** eta abuztuak 1 **AZPEITIA**

## ||| HIZKUNTZ ESKUBIDEAK |||



### **GORA.** Babestu ezazu euskara!

Poltsikuko dirua aurrezteko, beherapenak edo stock-aukerak aprobeztatzen ditugu. Euskara babesteko, berriz, garrantzitsua da erabiltzea, hitz eginez nahiz idatziz. Beraz, badakizu, euskarak eskertuko dizu eta erabili hitzean-hitzean! 📝 **Uztarría**



### **BEHERA.** Txakurra euskarari kosk egin nahian.

Etxe honetako nagusiak hobe luke kartela euskara hutsean jarriko balu. Euskararen normalizazioa lortzeko bidean a zer nolako atzerapausoa! Txakurrak berak ulertzen ote du kartelak dioena? 📝 **Uztarría\***



Mikel Labaka

## ||| ESANA DAGO |||

||| “Azpeitia gabe bizitzen badakit, baina Azpeitian bizi nahi dut”

||| “Pertsona naiz, eta gero, futbolaria”

**MIKEL LABAKA**  
futbol jokalaria ohia

||| “Garai batean, dena soro, zelai eta basoa zen; orain, industrialdea”

||| “Agian geure txorakeria izango da, baina guk beti Landetakoak garela esaten dugu”

**SEBASTIAN LIZASO**  
bertsolaria

||| “Lehen lerroko jendea, euskal mundua hain murrizta izanik, ez da hainbestekoa. Lehen lerro hori asko zukutu dugu”

**XABIER EUZKITZE**  
kazetaria

## Herritarrei postala

**M**etropolia utzi eta Zarauzko itsas kolonian oporretan. Oso ondo pasatzen ari gara. Eguraldi zoragarria (nahiz eta nik bero ito larri hauek ez jasan) dugunez egun osoa hondartzan pasatzen dugu. Haurrak ezin hobeto gazteluak eta pastelak eginez. Txikia urertzean jolasean gozatuz eta handia (zer azkar handitu den) olatuekin dantza egin nahian. Badakizue, hauek ezer gutxi behar dute ondo pasatzeko.

Herrian baino herritar gehiago ikusten da hemen. Astegunean asko eta asteburuan izugarri. Bertakoek izurria edo plaga garela diote baina, seguru nago, barru-barrutik gu gabe zer egin ez luketela asmatuko. Goazen

tokira goazela arrastoa uztearekin batera xapook glamourra ematen diogu zapaltzen dugun lurrari.

Azpeitiarra bai baina azpeitianoa ez. Ez naiz kanpoan egonik herrimina sentitzen duten horietakoa. Baina herriko berri izatea gustatzen zait. Sare sozialekin eta www.uztarria.com-ekin herrian zaudela dirudi. Jakin badakit Xubik zer arazo dituen taldea aurrera ateratzeko (zer gaizki dagoen herria Xubik ere dirurik lortu ez badu); egia esan, Lagun Onakeko berri gutxi dut (fitxaketa ez bada hobe, herriko taldean herritarrek joka dezatela); San Ferminetan gutarrak nola ibili diren ere jakin dut (Iruñako berriemailerik onenari



txetxu urbieta

esker beti albiste prexko-prexkoak); eta, noski, eskeletan gure artetik bizi hobe baten bila joan direnen berri ere izan dut.

Metropolian Saninaziyuek mimos prestatzen ariko zarete. Txupinazioa Keuttinek bota behar omen du (urtero bota dezala). Beldur naiz bere hitz aspertu luzeak ez ote duen ekitaldia Iruñakoa baino gehiago atzeratuko. Txapel lagunak dio kalimotxo utzi nuenetik osasuna galtzen hasi nintzela. Egia dena birus tontoren bat nire gorputzean sartu zenetik festa eta leku jendetsuak ez ditudala atsegin. Beraz, festetan ez nauzue kalean gora eta behera ikusi. Baina zuek ondo pasatu. Bizi eta ez iraun. Erre bazterrak.✘

### IKUSTEKOA!



### ▲ HONDARTZA ALA IGERILEKUA?

Uda sasoiari sarri gertatzen zaie askori hondartza ala igerilekua aukeratu beharra. Eta, erreka? Argazkiotako gazteek freskatua Urrestillako Altunako presan hartzea erabaki dute, garai bateko ohitura berreskuratuta. Uztailleko beste egun sargori batean, berriz, urrutira joan gabe, herri kaskoan, estaziorako zubiaren ondoan hartu zuten hainbat gazte bainua. 📍 A. Agirrezabala ✘

## UZTAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



maite garmendia



### *Azpeitiar eta azkoitiar haiek*

**MUNOAUNDIKO INDUSKETAK.** Bi herrien arteko mugan dago Munoaundi. Hor arituko dira aurtengo udan ere burdin-aroko garai urrun haietan bizi izan ziren gure arbasoen bizimoduari buruzko aztarna bila. Zer bilatuko zain egongo gara. Azpeitiarrek eta azkoitiarrek elkarrekin bizi izan ginen garai haietakoak.



### *Aho bizarrik gabe*

**IRIARTE.** Horrelaxe aritu zen Maddalen Iriarte Sana-gustinen, aho bizarrik gabe, eta horrelaxe aritzen da kolaboratzen duen telebista, aldizkari eta egunkarietan ere. Berak dioen bezala, boterean edozein dela ere, auzitan jarri eta kontrastatuz. Bejondeiñela Maddalen!



### *Festa jendeak egiten duelako*

**OINATZ.** Arrazoiz gainezka, Azpeitiko Oinatz Animalista Taldeak Sana-gustinen antolatu duen erakusketa. Pentsarazteko galderak: bazuen "gozamenaren" mesedetan zergaitik sufritu behar dute anima-

liek? Zergaitik ez ditugu duintasunez tratatu behar? Tradizioaren izenean ikuskizun krudel hori mantendu behar al da?... Festa jendeak egiten du, jendetasunez jokatzeko arrazoi franko eman digute.✘

## Asko egiteko

**H**andinahikeria, itxurakeria, harrokeria... askotan azpeitiarrei egotzi izan zaizkigun adjetiboak dira. Batzuek esango dute ez dela orokortasunetara jo behar, baina, estereotipoek, sarri, joera bat izaten dute jatorri.

Inon gutxi egongo dira biztanleko hemen bezainbeste BMW eta beste eztaikit zenbat mila eurotako autoak. Inon gutxi, hainbeste itxurakeri kalean, etxeko ezinak ezkutatzeko ahaleginak, eta ondokoarenak larrutzeko go-goak. Kontua ta zikina, telefono jolasean bezala, goizeko hamaiketan txikieria bat zena iluntzerako hildakoak tartean dituen tragedia bihurtzen da gure herrian. Bitartean, langabezia nonahi, etxebizitza bat ezta ametsetan

ere, eta lokaletan sofing-a nagusi. Atzerritarrei errespetu gutxi, "macho alfa" gehiegi, berziklatu oraindik apenas...

Eta hala ere, zergatik ukatu, nongoa naizen galdetzen didatenean, ez dut lotsarik sentitzen. Nahiko harro esaten dut gazteleraz hitz egiten ere ez dakigula, gaztetxe ederra daukagula, festetako herri bazkarian mila lagunetik gora biltzen garela... ta beste hamai-ka gauza. Beste herri batzuetakoekin asteburuko kontuak errepasatzerakoan, harritura begiratzen gaituzte: "Azpeitin beti dago zerbait" esan zidan batek behin, "Azpeitin beti da Elkartasun Eguna" beste batek orain gutxi.



|||||||yuri agirre|||

Eta, paparra altxatzen dudan bitartean, neure baitan zalantzak sortzen zaizkit. Batzuetan hainbeste lotsatzen nauen herriaz harro sentitzen naiz besteetan. Negu Gorriak-ek zioen bezala, amodioa eta gorrotoa ukabil banatan tatuaturik.

Ez dakit, mila aurpegi ditu gure herri mada-rikatu eta maitatu honek. Erosokerietan ez dugu erori behar, are gutxiago konparazio zentzugabeetan, baina daukaguna baloratze-ko tartek ere hartu behar ditugu. Azken urteetan herria aldatu delakoan nago, baina era berean, aldaketaren abiadura eta tamaina biderkatu behar ditugulakoan. Asko dugu egiteko.\*

**Ba al dakizu, azken lau urtetan Patxi Lopez ez dela azpeitira etorri san inazio bigarrenean, baina aurten iñigo urkullu hemen izango dela? Uztarria**

## Katedralaren sotoan

**J**oan den uztailaren 10ean, hitzordu bitxi bat nuen, Oier Etxeberria artista azpeitiarrak gonbidatuta eta konpainia onean: Iñaki Segurola, Garbiñe Larrea eta Lanberto Perurena. Non eta... Donostiako Artzain Ona katedralaren sotoetan. Zertarako eta... Esanezina hitz egiteko.

'Esan ezin denaz isiltzea hobe', zioen Wittgensteinek. Sarrionandiak, aldiz: "Ezin mintza daitekeenaz mintzatu egin behar da". Esanezina adieraztea: horra hitzaren grazia. Esanezina esan nahi eta ezina: horra hitzaren ondoeza.

Han bildu ginen, hitzaren ondoezean, katedralaren hondoetan. Bertan da ikusgai, uda

osoan, Etxeberriaren *Pure Data (Hamar)* erakusketa soil bezain txundigarria. Duela 200 urte inguru, sistema metriko hamartarren inguruan Gipuzkoan izan zen ika-mika aurkezten digu, eztabaida sakonago baten erakusgarri: zientzia berri nahiz erlijio zahar guztiak aski ote dira errealitatea zer den argitzeko?

Gure neurketa eta esplikazio guztiek Errealitate neurtezinaren, esanezinaren, irudikaezinaren atarian uzten gaituzte, hitz guztiek Misterioaren atarian, aurrerago nahi eta ezin. Unibertsoa mugatua da, baina ez du ertzik; matematikak neur dezake, baina ezin diogu inoiz azken muga harrapatu. Atomo ñimiñoa

ere mugatua da, baina mugarik gabe; eta partikula infinituki txikiak dantzan, gure espazio eta denboraren neurri guztietatik kanpo, han eta hemen batera, lehen-orain aldi berean.


Zer dago, bada, neurtzen dugunaz haratago? Zer zen dena hasi baino lehen? Auskalo! Ez gehiegi fidatu neurriez. Dena da mugagabearen muga: dorrearen gainean zerua, sotoaren azpian itsasoa. Haratago honatago da. Une bakoitza, hasiera eternala. Ez izan beldur, beraz, heriotzari. Forma guztien eze-zeza da Dena. Ez Ezerez hutsa, Hutasun bete baizik, Hutasun bibrazio bizi arazlea. Deus ez. Deus est.\*



|||||||joxe arregi|||



## HAU HOLAXEENK



enok sudupe

**landeta**  
brikodenda

**ONDO PASAU  
SANINAZIYUEK!**

Abuztuan goizez irekita



**BURDINDEGIA - BRIKOLAJEA - ELEKTRIZITATEA - SEGURTASUN BABESA - GILTZEN KOPIAK  
PINTURAK - PARKET-AK - GARBIKETARAKO MATERIALA - OSAGAIK**



Landeta Hiribidea, 8 - Azpeitia  
Tel.: 943 81 25 66 • Mug. 607 58 89 13  
[www.landetabrikodenda.com](http://www.landetabrikodenda.com)



[jarraitugaitzazufacebook-en](https://www.facebook.com/jarraitugaitzazu)

## Uztaila

**M**undua bukatzen den bi sasoi daude urtean. Bata urte bukaera da; bestea uztail bukaera, saninazio bezpera, hain juxtu. Dena bukatzen da, dena bukatu nahi izaten da, ematen du ez dagoela handik aurrera ezer. Lanak bukatu behar izaten dira, eta lanik ez dagoen sasoi hauetan ere lana pilatu egiten da. Presak nagusitzen dira, presaka ibiltzen gara, saninazio bezperarako dena lotuta uzteko, oporretara joateko, edo joan gabe ere, atsedena hartzeko, behintzat.

Halere, aurtengo uztaila gogorra izango

da, lanak bukatzetik lana bukatzera pasatuko baita jende asko, lanetik kalera bidali dituztelako. Hauentzako ere mundua bukatuko da seguru asko, baina hau beste bukaera bat da, ozpinagoa. Hala ere, gogoratu behar da irailan berriz ere hasi egiten dela mundua, berriz ere borroka hasten dela, berriz ere borrokan jarraitu behar dela. Eta irailetik aurrera ere esperantza izan behar dugu, lana egongo den esperantza, gauzak konponduko diren esperantza, gauzak hobetuko diren esperantza.



### |||||eñaut frantzesena|||

Izan ere, lanik ez dagoen sasoi hauetan urtean zehar baino lan gehiago dago leku batzuetan, behintzat, ordu gehiago sartzen ari dira, eta esperantza txiki bat ematen du horrek, irailan ere lan gehiagorekin jarraitu ahal izateko esperantza.

Baina egoera ez da egun batetik bestera aldatuko, eta abuztuaren atsedena hartu, hausnartu, pentsatu eta egoerari aurre egiteko prest egon beharko dugu irailan, asko baita go erakitzeko, egiteko, lantzeko.

Irailan berriro mundua hasten baita.\*

## El gran caminante

**Z**umaiarra bera, Azpeitian lan egiten zuen. Ez zen idazlea izatez, baina izan zitekeen bizitzak aukera gehiago eman balizkio.

Erdaraz idatzia dagoen arren, sarri sartzen ditu euskarazko hitzak. Baita bere alabatxoarekin oheratzekoan abesten zuen euskarazko abestia ere.

Egia esateko liburu hau irakurtzea erabaki nuen konpromiso lege bat banuelako idazlearekiko, izan ere Anttonek eta nik toki berean egiten genuen lan. Ez zen hitzuna baina a zer sorpresa, ez nuen berehalakoan imajinatuko mutil hark barruan zuena, hau da, ikaragarritzko sentsibilitatea eta, era berean, sekulako gaitasuna gauzak idatziz deskribatzeko. Benetako idazlea.

Ni beldur naiz gai izango ote naizen ondo adierazteko liburu honen sakontasuna.

Argudioa nahiko simplea da, baina kontuz, liburu batean bi liburu direla esango nuke. Batek Santiagora oinez eginiko bidaia bat deskribatzen du, azkena hain zuzen. Berak aipatzen duen bezala, bidaia asko egin zituen Santiagora, Frantsesa deritzen zaiona, Kostakoa, Sevillatik datorrena

### |||||KRITIKA||||| 'El gran caminante' nobela



**Autorea.** Antton Gonzalez Gabarain, 'Bolitx'.

**Argitaletxea.** Erroteta, 2012.

**Orrialde kopurua.** 380.

**Salneurria.** 20 €.

eta abar. Batzuetan oinez, besteetan bizikletaz. Batzuetan lagunekin, besteetan bakarrik. Liburuan azaltzen duen honetan bera bakarrik irten zen oinez etxetik, Zumaiatik 2008ko martxoan. Liburuak zoragarri deskribatzen ditu gertakariak eta bideak dituen zailtasunak, pozak eta beldurrak, bere ondoan zoazela ematen du. Askotan barrea ere aterarazten du. Bide batez, pasatzen den lekuetako istorioak eta xehetasun interesgarriak azaltzen ditu. Hasi eta berehalaxe aldatu zitzaidan liburuaren perspektiba. Anttonek oso ondo idazten zuen, orriak pasatzen ari diren eran gero eta hobeto, gainera. Pixkanaka etapak pasatzen ari diren heinean bidaiaria espiritualki aberasten doa eta deskribapen luzeagoak eta askoz ere sakonagoak egiten ditu. Ez du galerarik Galizian sartzen denetik aurrerakoak.

Liburu honetan bi liburu daudela ulertzeko garrantzizkoa da jakitea idazten ari zela gaixotasun gogor batek jo zuela Antton. Eskuak erabiltzeko gaitasuna galdu zuen, hitza ere ia dena. Gogor saiatuta zen halere, eta bukatu zuen bere lana.



### |||||luix juaristi|||

Zerbait handia egiten ari zela ondo zekien eta horrek harrigarritzko zoriontasuna ematen zion. Nik uste gaixotasunetik kanpo sentitzen zela idaztean. Nahiko gaizki zegoela jakinda korreo bat bidali nion animoak emateko. Erantzuna berehala iritsi zitzaidan, "Gaixotasun hau bortitza izanda ere, lasai dauzkat burua eta biotza...". Korreoa zihoen liburuak idazten ari zela. Orain ulertzen dut zer indar eman zion liburuak. Bere altxorretako bat zen.

Nik garbi ulertu dut Santiagorako bidaia hau bere bizitzaren bidaia ere badela. Gehien harritzen nauena, zegoen bezala egonda, zer bake eta lasaitasun zeukan, zenbat maite zuen familia, lagunak, ingurua eta berak aipatzen dituen kanpaitxoak (altxorrak).

Bi bidaiak, bi liburuak bat egiten dute Santiagoko Obradoiro enparantzan. Han, bera bakarrik eskaileratan eserita bi tokitan dago. Han bertan eta bere etxean azken arnasak ematen familiarekin. Bukaera disdiragarria da.

Antton 2012ko irailan hil zen, liburuak bukatu eta hiru egunera.

Goza ezazue lasai-lasai liburu honetaz.\*

▼ **SOKATIRA TXAPEI**

Loiolako hiribidean, Izarra atzeko sokatirako txapelketa. Kanpoko zegoen, baita Etxebeltz-Izarrak ere. Martxieleneko tximinitik kez eta Nuarbek iada ez du sokatira



# Nola aldatu da?

1990eko hamarkadako saninazioetako eta santioetako argazkiak utzi dizkio Iñaki Etxenagusiak Uztarriari. Festa eta herria, biak aldatu dira. 📷 Iñaki Etxenagusia



**LKETA.**

o zelaian, jokatzen zuten  
igerilekua artean egiteko  
babes ofizialeko etxeak  
a ageri da, gaur ez bezala,  
ko talderik.

**▲ KARRAK, DAMASON.**

Santio egunez, karren arteko lehia izaten zen ikusgai, Damaso auzoan. Azkenengo aldiz, duela dozena bat urte antolatuta zuten lasterketa hura. Sanjuandegiko festetan ere izaten ziren karrak.

**► ASTOTEGIA.**

Santio Egunez egiten da ganadu feria oraindik ere, baina lekua bera, Astotegia itxuraldatuta dago, garai batetik. Zelaixo zinema aretoa dagoeneko ez dago; haren lekuan supermerkatu bat dago. Une honetan, Foru Ibilbideko errepidea zabaltzeko helburuarekin, lanak ari dira egiten.





### ▲ **SU ARTIFIZIALAK.**

Duela urte batzuk, su artifizialak Zelai Luzetik botatzen ziren, argazkian ikus daitekeenez. Gero, Izarra hotelaren atzekaldetik hasi ziren jaurtitzen, eta gaur egun Esklabetako komentuaren atzekaldetik botatzen dituzte.

### ▶ **FRONTOI TXIKIAN, ESKALEXTRIA.**

Tiobibo eta barrazkez gain, saninazioetan eskalextrian denbora pasatu eta gozatzeko aukera izaten zuten gazteenek.



### ▲ **PROZESIOA.**

Urteak dira San Inazio bigarreanean prozesiorik egiten ez dela. Garai batean, prozesioa Loiolaraino egiten zuten eta santuak kamioian garraiatzen zituzten.



### ▲ **‘TORERO-BONBERO’.**

Nanismoa duten hainbat lagunek zezen-plazan eskaintzen zuten ikuskizuna ere antolatzeari utzi zioten.





### ▲ UDAL-KORPORAZIOA.

San Inazio bigarreanean, Udaleko, Jaurlaritzako eta Diputazioko ordezkariak Loiolako elizkizunera joaten jarraitu dute prozesiorik egin ez arren. Argazki honetan eta ezkerrekoan argi ikusten da basilikaren kupulan berritzeko lanak ari zirela egiten.

### ▼ SOKATIRA TXAPELKETA.

Baserritarren egunean, uztailaren 25ean, egiten den sagardo lehiaketa berdura plazan egiten zen, garai batean. Gaur egun, enparantza nagusiko arkupetan sailkatzen dira txapelketan parte hartzen duten sagardo-etxeak.



▲ EFEFE EFEFE.   
 Efe fe.

# Tradizioaz eta eskubideez

**Zezenketak egin ala ez eztabaidagai izan da hainbat herritan azken hilabeteetan. Azpeitian gaiaren bueltako iritziak jaso ditu Uztarriak.   Ainitze Agirrezabala**

**A**zpeitian zezenik gabe festarik ez dagoela aspaldiko esaldia da. Herri zezenzalea izan da Azpeitia, baina horrela izaten segitzen al du? Sokamuturraren osasuna bistakoa da. Korridetan ere ikuslerik ez da falta, baina herriko belaunaldi gazteen presentzia garai batekoa ez dela agerikoa da. Hala ere, zezenketak eztabaidagai dira, baina zer neurritan? Zezenketen bueltan, galdeketak egin dira hainbat herritan, Zestoan eta Karrantzan, esaterako, eta bi herriak zezenketak antolatzearen alde agertu dira. Donostian, berriz, aurten ez da zezenketarik izango, Illunben zezenketak egiteko hitzarmena ez baitu berriitu Udalak. Azpeitian, momentuz, zezenketen inguruan ez da inolako erabakirik hartu. Saninazioen atarian, zezenketak hizpide hartuta, aldeko eta kontrako iritziak jaso ditu Uztarriak.

Herrian zezenketen inguruan eztabaidatzea "garrantzitsua" da Oinatz Animalista Taldearentzat. Elkartekoek Azpeitian zezenketen inguruko herri galdeketa egiteko asmorik ez dute, "momentuz". Taldeko kide Haizea Odriaren esanetan, "taldearen ibilbidea oso

motza da, duela urtebete sortu ginen eta, zuzenean sinadurak biltzen hasi aurretik, uste dugu jendea kontzientziatzeko lana egin beharra dugula. Horren adibide da herrian zezenketen gaineko eztabaida sortzeko asmoz sanagustinen jarri dugun erakusketa. Gure helburuak dira, batik bat, zezenketa zaleek erabiltzen dituzten arrazoiei buelta eman eta beste aldea erakustea eta arrazoitzea, eta ikusleak biktimaren tokian, zezenaren tokian jartzea, alegia".

Erakusketaz gain, mahai informatiboa ere jarri dute sanagustinpen, uztaileko bi asteburutan. Oinatzeko kide Joxe Agirrek dioenez, "asko ez ziren ausartzen mahaira inguratzen, baina batzuk etorri dira espresuki sinadura ematera. Jendeak uste du Azpeitian zezenketak egitearen kontrako sinadurak ari garela biltzen, eta hori ez da horrela. Zezenketak ondare kultural izendatzeko gaia kongresuan ari dira eztabaidatzen eta gu horren kontra ari gara sinadura bilketa egiten. Batzuek diote zezenketak bere kabuz eroriko direla. Sinatu zuenetako batek, berriz, hala esan zigan, sokamuturra ukitu ere ez egiteko. Era guztieta-

ko iritziak daude. Jende batek ez du ikusten zezenketak eta sokamuturra tortura direnik, eta denborarekin eta lana egitearen poderioz, jendea kontzientziatzen segi beharra dugu". Hala, mahai informatiboa San Inazio bezperan eta egunean jartzea ere aurreikusten dute. Eta hilaren 31n, berriz, zezen plaza aurrean elkarretaratzea egingo dute, 17:00etan.

Miren Alcedok gaineratu duenez, "gai horren inguruan pentsatzen ez duen, edo tortura dela ikusten ez duen jende on asko dago. Gure lana da horiei begiak irekitzea, ahal bada. Uste dute ikuskizuna dela, eta bai, ikuskizuna da, baina ikuskizun ikaragarria, tortura. Eta hori, beste herrialde batzuetan egiten dutena ikusita, argiago ikusten dugu. Adibidez, erakusketan ablazioa azaltzen da, eta hori ohitura bat da. Beste lurralde batzuetan, emakume adulterioegileak harrikatzen dituzte. Erahilketa publikoa da, oso herrikoia, herriak parte hartzen duelako. Guretzat horiek pentsaezinak dira, hori gure plazetan gertatzea, eta bestea bai? Zezena ere izaki bat da, bizirik dago".



Gaizka Otamendi argazkilari azpeitiarraren zezenketen gaineko ilustrazioa. || Gaizka Otamendi

Are gehiago, Oinatz taldearentzat, "gaur egun bizi dugun egoera ekonomiko honetan zezenketak antolatzea dirua eralgitzea da. Ezin da onartu dirutza horretan gastatzea. Zezenketak antolatzeko Udalak diru publikorik ez duela jartzen esaten da, baina hori horrela al da benetan?", bota du galdera Amaia Garmendiak. "Zezen plaza norena da? Nork mantentzen du? Zezenketak antolatzen dituztenek hartu ditzatela gastu horiek euren gain. Gainera, kasualitatez, saninazio festetarako egokitzen dute plaza, urtero. Gainera, orain arte, Udalak zezenketara joateko sarre-mordoa erosten zuen, udal langileen artean banatzeko. Eta Udalak kaleratzen duen festetako programan korridetako argazki asko argitaratzen du eta ekintza horrekin zezenketak ari da bultzatzen. Eta gure egitekoa da festetako programan gure ahotsa izatera ailegatzea".

### "Udala posizionatzea"

Azpeitiko Udalari "zezenketen eta sokamuturraren inguruan posizionatzea" eskatu nahi dio animalista taldeak. "Zezenketen inguruko galdeketa-eta hitz egin izan dugu jendearekin, eta askotan ondorioa da debekatzea ez dela bidea. Gainera, guri ez zaigu iruditzen zezenketak galdeketa bat egiteko gaia direnik. Etikoki oso gogorra iruditzen zaigu izaki bat torturatu eta hil behar den bai ala ez eztabaidatzea edo zalantzan jartzea. Animaliek eskubide batzuk dituzte, eta eskubideak direnean ez dira galdetzen, beste gauza batzuk galdetzen ez diren bezalaxe. Baina udalak zezenketen inguruan posizionatu egin beharko lukeela uste dugu".

Udaleko Festa Batzordekoen hitzak entzunda, ez dirudi horrelakorik gertatuko denik. Festa batzordeburu Mikel Ibartzabalen esanetan, "udal gobernu bezala erabaki bat ez dago gai horren inguruan. Zinegotzien artean denetako iritziak daude, zezenketak gustatzen zaizkienak, ez zaizkienak gustatzen, zezenketen kontra daudenak, aldekoak... eta zezenketen gainean eztabaidarik ez dugu sekula izan. Sokamuturraren gainean, berriz, ez dago eztabaida sozialik. Udal gobernuari iruditzen zaio ez dela berak erabaki beharreko kontua, horregatik ez dugu jarrerarik. Esan nahi dut, eztabaida bat balego, erabakia herritarrek hartu beharko lukete, Zestonan gertatu bezala. Horretarako tresna bada, herri kontsulta".

Halakoetan, herri-ekimenak bi bidetatik ekin ahal izango dira: Alkatearen ekimenez, eta horretarako, udalbatzaren gehiengo oso-

►aren aldeko erabakia beharko da aurrez. Edo, Azpeitiko herritarren ekimenez, beti ere, Azpeitiko udalerrri osoan erroldatutako adin nagusitasuna duten pertsonen %15ak, gutxienez, banaka eskaera zehatza idatziz gauzatu badute. Ibartzabalek dioenez, "Udalera ez da herritarrik etorri, ez talderik, ez Oinatz Animalista taldea zezenketen inguruan erabakiren bat hartzeko proposamena egitera. Neu zezenzale handia naiz, eta iruditzen zait zezen plazan zezenketak antolatzen badira inor ez dagoela obligatuta hara joatera. Nahi baduzu joango zara, eta nahi ez baduzu ez". Animaliei tratu-txarra ematen zaien ekitaldi oro debekatzeko Equo-Berdeak alderdiak hainbat udalerritan mozioak aurkezteko asmoa zuela iragarri bazuen ere, Azpeitiko Udalera, momentuz, halakorik ez dela ailegatu jakinarazi du.

Udalak Zezenzale Batzordearekin duen harremanaz galdetuta, zinegotziak "garbi laga nahi izan" du Udalak zer laguntza ematen duen. "Zezen plazan ekitaldia antolatzen dutenek beraiek finantzatu behar dute, zezenketak izan edo beste ikuskizunen bat izan. Horretan ados gaude udal gobernu honetan. Guk Udaletik zer laguntza ematen dugun? Zezen plazan sorospen-gela bat dago, baina atzera geratuta, eta hura berritzeko astakeria bat gastatu beharra dago. Zezenketak dau-



||| "Ez zaigu iruditzen zezenketak galdeketa bat egiteko gaia direnik. Etikoki oso gogorra iruditzen zaigu"

**HAIZEA ODRIA**

Oinatz Animalistako kidea



||| "Udal gobernuari iruditzen zaio ez dela berak erabaki beharreko kontua. Erabakia herriak hartu beharko luke"

**MIKEL IBARTZABAL**

Udaleko festa batzordeburua

den egunetan, anbulantzia bat alokatzen da eta gastu hori, 2.100 euro inguru, Udalak ordaintzen du. Eta plazaren mantenu lanak egiteaz Udalak arduratzen da. Ez zezenketetarako bakarrik, urtean zehar hainbeste gauza izaten da: aizkora apustuak, errektortariak... eta zaindu beharra dago".

**"Azpeitia, zezenzalea"**

Zezenketarik gabeko Azpeitirik imajinatzen ez duena Zezenzale Batzordeko Jabier Beobide da. "Aspaldiko esaldia da Azpeitian zezenik gabe festarik ez dagoela, eta hori egia da. Zezenzalea da Azpeitia, hori ez dago ukatzerik. Nik ez dut zezenketarik gabeko Azpeitirik imajinatzen. Gainera, zezenketek badute berezitasun bat kanpotik jendea erakartzeko. Esango nuke Azpeitian zezenketek osasun ona dutela. Noski, zezenaren barruan interpretazio desberdinak egon daitezke: sokamuturra bai, korridak ez... Nire hausnarketa da, zezenketen kontra egotea bai ala ez baino gehiago dela politika kontua. Gaia gutiz politizatu da. Festa nazional edo espainol bezala bultza izan dira zezenketak, eta horrek eragin zuzena du gazteengan. Baina zezenketak betidanik egon dira Euskal Herrian eta sekula ez da gatazkarik izan. Ikusi besterik ez dago sokamuturrak zenbat jende mugitzenn duen, gazteak, helduak, guztiek hartzen dute parte. Azken batean, nik gauza bat esaten

dut, tradizioen kontra joaterik ez dagoela. Ohitura hauek jarri zituzten gure aurrekoek animalientzako eta beste gauzetarako sentimenduak izango zituzten ba? Edo, zer ziren, kafre batzuk? Zer gertatzen da hemen, orain denok puristak garela? Haiak ere, bere garaian, jarri zituztenean ilusio eta borondate onenarekin jarriko zituzten. Hori gustu kontua da. Gustatzen zaiona joan dadila, eta gustatzen ez zaiona ez. Inor ez da derrigortzen".

Beobideren esanetan, Zestoako herri-galdeketa izandako emaitza "erreferentzia handia" izan da. "Zestoan herri galdeketa egin zen, batik bat, gaia politizaturatu dagoelako. Lortutako emaitza ez zen espero. Ezezkia atera izanak gauza asko frenatu ditu. Bestelako erantzuna eduki izan balu, igoal hemen ere galdeketa bat egitea proposatuko litzateke. Nik zezenak kentzea ulertuko nuke ikuskizun bat antolatu eta jendearen aldetik erantzunik izango ez balu. Eta, zoritxarrez, akaso, zezenekin hori pasatuko da, atzetik belanaldi gazteen jarraipenik ez dugulako. Baina horren kontra joan? Desagertu behar badute, desagertuko dira. Alde horretatik, Azpeitiko Udala zoriondu egiten dut, udal gobernuan zezenketen kontrakoak eta aldekoak egon arren, behintzat errespetatu egiten dutelako eta ez daudelako kontra".

Hamar urte daramatza zezenzale batzordean Beobidek, eta zezenketak antolatzeko



||| "Zezenketei pasatu zaien gauzarik txarrena izan da politizatzea. Ilegalizazioa faxismo hutsa da"

**GAIZKA OTAMENDI**

zezenzalea

gastuei dagokionean "harro" daude, ikuskizuna beraiek finantzatzeko dutelako. "Aurten-gorako, 300.000-350.000 euroko aurrekontua dugu, eta saldutako sarreretatik finantzatu dugu ikuskizunaren %95a. Orain arte, plazan jartzen zen publizitateak ere lortzen genuen zeozer, baina iragarkien kontua asko jaitsi da eta orain zer ateratzen dugu ba, hutsa. Krisiaren eraginez, garai batetik, abonatuaren kopurua ere %20 jaitsi da, gutxi gorabehera. Baina, aurtengo saninazioetan, beste urteetan baino jende gehiago etortzea espero dugu kanpotik, Donostian aurten zezenketarik ez egoteak eragina izango du horretan. Krisiak krisi, azken hamar urteotan, batzordeak "lortutako etekinetatik 100.000 euro banatu" ditu Caritasera, Sierbatara eta zaharren egoitzara.

### "Faxismo hutsa"

Zezenzale "amorratu" da txikitatik, Gaizka Otamendi herritarra. "Egundoko mundu ederra da", dio. Otamendiren esanetan, "gauza asko ari da nahasten. Nik uste dut hor interes batzuk daudela; lehenbizi zezenak nahi dituzte ilegalizatu, gero, sokamuturra, zaldi karrekar, ahari jokuak eta animaliekin egiten diren ikuskizun guztiak debekatu nahiko dituzte, beti ere zezenketak inflexio puntu hartuta, bisualki gogorrenak direlako". Azpeitian bizi bada ere jaiotzez zestoarra da, eta Zestoan egin dutena "kristoren itxurakeria" iruditzen zaio. "Zezenak kendu arteko onik ez zuten, legimititate bat ematea nahi zuten eta erreferenduma egin dute, baina ustel atera zaie kontua. Bilduk hauteskundeetan lortu zituen adina boto lortu ziren ia zezenen alde. Ortuellan zezenketak kendu zituzten, Donostian ere bai, egia esan niri hori faxismo hutsa irudi-



### III "Nik zezenketak kentzea ulertuko nuke ikuskizuna antolatu eta jendearen aldetik erantzunik ez balu"

#### JABIER BEOBIDE

#### Zezenzale Batzordeko kidea

tzen zait. Oker ez banago historian hemen zezenak ilegalizatu dituen bakararra Primo de Rivera diktadorea izan zen. Eta orain Bildu ari da ilegalizatzen. Herri galdeketen oso aldekoa ez naiz. Arazorik ez dagoen lekuan arazoa ari dira sortzen".

Zezenketen gainean Azpeitian herri kontsulta bat egitea "oso gaizki" iruditzen zaio. "Oso inkoherenteki jokatzea litzateke. Sokamuturra hortaz, zergaitik ez litzateke kenduko? Edo, ahari jokoak? Eta, ate hori irekitzen bada, oso urrutira ailegatu daiteke. Gainera,

nik uste dut beste ilegalizazio prozesu batean bezala sartuta gaudela. Eta, gainera, ilegalizatu izan den alderdi edo sektorea oso interesatuta ikusten dut horretan. Jendea jokatzen bada, plaza betetzen bada, utzi. Azpeitian urte osoan antolatzen den ekitaldirik handiena zezenketak izango dira, eta horren inguruan erreferenduma? Jendeak uste du zezenketak espainolak direla, eta hori ez da horrela. Francok bere garaian, Espainia sustatzeko zezenak eta Sevillan erabili zituen, baina zezenketen lehenengo dokumentua Soraluzen dago, XIII. mendekoa da. Eta sokamuturra arautzen duen aurreneko dokumentua Tuterakoa da".

Oinatz Animalista Taldearen erakusketa bisitu du Otamendik, eta gauza asko "testuingurutik kanpo" daudela adierazi du. "Nik ez dakit Oinatz Animalista taldeak zergaitik sartu behar duen horretan. Guri laga diezagutela zezenak ikusten lasai, eta nahi ez badute ez daitezela joan. Egia da, erakusketan azaltzen diren zenbait gauza benetan hala direla, eta zezenen munduan dabilen norbaitek esan beharko du ukuluetan zer pasatzen den. Esaten dutenez, porlan zakua zezenari bizkar gainera botatzen diote, adarrak moztu ditzkiote edo begietan baselina eman, plazara kastigatuta ateratzeko. Horiek egiten direla, oso zabaldua dago. Egundoko mafia zaharra dago hor; egia bezala saltzen dizkiguten gezur asko, eta gauzak argitzen hasi beharra dago, zezenei duintasuna kentzen baitzaie. Eta ni horren kontra nago erabat. Bestela, fartsa bat ikustera zoaz. Baina berriro esango dut, zezenketei pasatu zaien gauzarik txarrena politizatzea izan da. Eta ilegalizazioa eta inposizioa, horiek faxismo hutsa dira". ✘

**Kutxillo**  
Urdaizapikoak, hestebeteak eta gaztak  
KALITATEA MODU ONEAN  
Inaut. 656 791 419. Oin. 618 240 173.  
Damaso Azkue plaza 6, behea  
Tlf: 943 15 03 19  
kutxillo@gmail.com

arte eta diseinu ikastegia  
**Gai**  
● Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00  
● Pintura 17:30/19:00  
● Talla 19:30/21:00  
Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
matrikula urte guztian zabalik

**KIRURI**  
**JATETXE**  
Loiola hiribidea, 24  
**LOIOLA - AZPEITIA**  
Tlfnoa.: 943 81 58 08  
Faxa.: 943 15 03 62

**Uba**  
enbukuritza  
Aholkularitza  
fisikala  
laborala  
kontabilak  
Gestori lanak  
Finanzen administrazioa  
Gestio inmobiliarioa  
Tlf: 943 157 325 Faxa: 943 157 278  
Enpatzen kalea, 45 • uba.azpeitia@net

# Etxean bezala

Garai hauetan, familia askorentzat zaila da oporretara irtetea. Bi herritarrek oporretan dirua aurrezteko sistema bat azaldu diote Uztarriari. 📝👁️ Eneritz Albizu

**E**z da lan makala oporrak prestatzea. Lekua hautatu, garraibidea erabaki, egingo diren gauzak adostu, eta nola ez, guztia ordaintzeko aurreztu. Diru asko gastatzen da oporretan, eta horren zati handi bat lo egiteko lekua ordaintzeko soilik erabiltzen da. Baina ez al dago aukerarik dirua xahutu gabe merezitako anasa hartzeko?

Asun Etxaniz baiezkotan dago. Harek eta izena gorde nahi izan duen beste azpeitiar batek oporrak antolatzeko beste modu bat azaldu diote Uztarriari. Etxanizentzat deskonektatzeko "beharrezkoa" da herritik irtetea, urtean behin bada ere. Hori horrela, 2002. urtean deskubritu zuten hizpide den oporretara joateko sistema: norbere etxea beste lekuetako jendearekin trukatzea. Dirudien bezain erraza da trukaketa: etxea oporretarako uzteko prest dagoen familia bat aurkitu, harekin data bat adostu eta leku berriak ezagutzeko gogoia izan, horiek dira baldintzak. Zuek haien etxera, eta haiek zuenera; oporretara joan zaitezke, baina hoteletan eta apartamentuetan sosik xahutu gabe.

Asun Etxaniz eta haren familiak lau urtez trukatu dute euren etxea, oporretara joateko. Girona, Cadiz, Noja eta Tarragona ezagutu dituzte trukearen sistemarekin. Etxanizek dioenez, lehen aldia "ezustekoz" izan zen, lagun batek proposatu zion etxea Gironako familia batekin trukatzeko, eta "gehiegi pentsatu gabe" onartu zuen proposamena. "Guk



Asun Etxaniz.

hiru haur ditugu, eta hainbeste pertsonekin hotel batera joatea ez da oso eroso, beraz, aukera ona iruditu zitzaigun", dio Urrestillakoak. Irudipena bakarrik ez, zortea ere izan omen zuten azpeitiarrek: sekulako etxea suertatu zitzaien; bi pisukoa, terrazarekin eta hondartza parean. Esperientzia guztiak "oso positiboak" izan dira Etxanizen familiarentzat, etxea trukatu duten guztietan beste familiek ere ongi zaindu baitute euren etxebizitza.

## Oinarria, konfiantza

Hala ere, Urrestillakoak azaldu duenez, jendea "oraindik ez dago prest" euren jabetza

ezezagun batzuen esku uzteko. Elkarriketa-tuak pertsona askokin izan du eztabaida: "Jendeak bereak diren gauzak konpartitzeko beldur handia du. Gehienetan, ez dira gai gauza pertsonalak eta pribatuak, kasu honetan etxea, besteei eskaintzeko". Etxanizi esperientziak erakutsi dio besteekin fidatzen: "Haiek gutaz fidatzen badira, zergatik ez dugu guk gauza bera egingo?". Bere hitzetan, eredu horren "oinarria" konfiantza da.

Eta noski, hor ere, bizitzan bezala, alde batetik kenduz gero, beste aldetik jasotzeko aukera dago: "Etxea dohain izatea abantaila da, hor aurrezten duzun diruarekin beste mila gauza egin ditzakezu". Horregatik uste du Etxanizek trukearen sistemak, aurrera begira, ongi funtzionatu behar duela. Haren hitzetan, orain inoiz baino gehiago, oporretara joateko baliabideak falta dituzte familia askok, eta etxebizitza trukatzeko guztiei ematen die "errutinatik deskonektatzeko" aukera. Beraz, "zalantzarik gabe" animatuko lituzke azpeitiar guztiak eredia probatzera. Haren hitzetan, "luxu bat da, baina ordaindu gabe".

## Mundua ezagutzen

Oporretarako sistema bera hautatzen duen beste azpeitiarra, berriz, gutxi gorabehera 40 aldiz joan omen da beste familia baten etxera oporrak igarotzera. Hauek Espainiara ez ezik, Europara ere bidaiatu dute trukearen sistemarekin: Frantzia, Grezia, Italia, Maroko, Po-





Etxe trukaketa egin zuten lehen aldia. Asun Etxaniz, Julian Eizmendi gizonarekin eta seme-alabekin, Gironan, 2002an. **Asun Etxanizek utzita**

lonia eta Txekia bisitatu dituzte, besteak beste. Elkarrizketatuaren familiak ere ez omen du "inoiz inongo arazorik izan", aldiro ongi irten zaie trukea; gainera, oraindik jarraitzen dute harremanetan familiekin, "errepikatu behar bada ere".

Azpeitiarrak eta bere familiak jada normalizat jotzen dute oporretara joateko sistema hau erabiltzea, eta eurek ez dute "beste ereduetan pentsatu ere egiten". Lehen aldiz, aldizkari batean ikusi zuen oporretarako etxea trukatzea proposatzen zuen Murtziako bikote baten iragarkia: "Nik zuzenean deitu egin nien, eta hori izan zen gure lehen tratua". Ordundik aurrera, modu guztietara egin dituzte hitzarmenak: iragarkien bidez, telefonoko zenbakia lortuta, Internetez... elkarrizketuak azaldu duenez, gaur egun trukea egite-

ko lekuri errazena Interneteko plaza da. Han webgune asko daude oporretarako etxea trukatzera bideratuta: "Jendeak bere etxearen argazkia jartzeaz gain, parajeena, herritarrena, folklorea... partekatzen ditu. Nola-bait, bere produktua saltzen du".

### Bertakoa bezala

Herritarren aburuz, oporrek antolatzeko sistema honek beste edozein bidaia turistikoa baino zerbait gehiago eskaintzen du: "Asko ikasten da; jakintza aldetik, eta pertsona bezala". Azpeitiarrak azaldu duenez, atzerritar batzuekin etxea trukatzean, hangoen gisara bizitzen zara denboraldi batez. "Bertakoen begietatik ikusten duzu dena: agentzia batek leku turistikoenak erakusten dizkizu, baina etxea eta bizimodua trukatzean, barrutik ikus-

ten duzu beste lekuetako jendea nola bizitzen den".

Gauza bat nabarmendu nahi izan du, horrelako planak egiteko "adimena irekita" izan behar duela pertsonak. "Alde batetik, ezin duzu pentsatu zure etxea zurea eta zuretzat soilik denik; eta bestetik, gainontzeko herrialdeetako pertsonen bizimodua probatu eta ulertzeko prest egon behar duzu".

Gauza bat dute argi bi elkarrizketuek, ez dutela alboratzen, etorkizunean, berriro euren etxea oporretara joateko trukatzea. Haien hitzetan, sistema oso eroso eta segurua da, eta abagunea dutenean, berriro egingo dute gauza bera.

Beraz, hurrengo urtera begira, betiko oporren ordeko plana egin eta diru gutxiago gastatzeko aukera bat duzue etxe trukaketa. Hori bai, elkarrizketuek esan dutenez, lehenago hasi behar da lanean; udan oporretara joateko, gutxi gorabehera, urte hasieran bilaketarekin hastea komeni da. Aurtengo Gabonak udako norakoa erabakitzen pasatzera animatzen zaituzte esperientziadunek. ✪

|||"Haiek gutaz fidatzen badira, zergatik ez dugu guk gauza bera egingo? Luxu bat da, baina ordaindu gabe"

**ASUN ETXANIZ** lau urtez trukatu dute etxea, oporretara joateko



||||| aiora olaizola |||||



||||| ihintza elustondo |||||



||||| amets cañizares |||||

# Fantasiatzko ipuin baten atea

**E**uskal Udalekueetatik bueltan etorri aurretik lagun batek esan zizikidan hitzak.

**Jon.** “Diruarekin ordaindu ezin diren gauzak dira garrantzitsuenak. Zenbat egia esaldi labor batean. Esaldi labor batean zazpi hitz. Zazpi probintzia batuz herrialde bat. Herrialde hau, munduan bakarra. Munduan bakarra Euskal Herriko hizkuntza, euskara.”

**Aiora.** Gaur udalekueetatik etorri naun eta burua ezin altxatuta nabil.

**Ihintza.** Bai neska, inork beteko ez duen hutsunea uzten diton. Goizean esnatu eta inguruan ez dun inor ikusten.

**Amets.** Mendian ez bahago, igerilekuan hago, edo jolasten, dantzan...

**Aiora.** Izaera ezberdinen topaketa izaten dun.

**Ihintza.** Nola izan zen zuen lehenengo lotura Euskal Udalekuekin?

**Amets.** Nire kasuan aspaldiko kontua dun. Txikitan ume bezala joaten nindunan eta orain, nahiz eta rolak aldatu, ezin bertaratu gabe bizi.

**Aiora.** Zuei urtero berdina entzuten nazkatuta, probatu egin behar. Eta hara! Aurten joan naun lehenbiziko aldiz.

**Ihintza.** Nik izugarriko pena zaukanat aurten joan ezin dinadalako.

**Amets.** Orain ulertzen dinat herri ezberdinetako hainbeste ume elkartzean sortzen den zera hori...

**Aiora.** Magia!

**Ihintza.** Ezer ez dagoen herri txiki batean euskara hutsean...

**Amets.** Borondateak zenbat ahal duen.

**Aiora.** Pertsonen borondatea mugaezina da. Borondateak harresiak botatzen ditu.

||||| **AIORA.** “Udalekueetatik etorri naun gaur, eta burua ezin altxatuta nabil”

||||| **IHINTZA.** “Inork beteko ez duen hutsunea uzten diton. Esnatu eta inguruan inor ez”

||||| **AMETS.** “Badira lagunak inoiz ahaztu ezingo ditugun harreman laburrak”

**Ihintza.** Ametsak egia bihurtzen ditu.

**Amets.** Eta lagunak ere egiten ditu.

**Aiora.** Diruarekin ordaindu ezin den ordain-saria jasotzen dute proiektu honetan borondatez jarduten duten hezitzaile guztiek.

**Ihintza.** Espero gabeko besarkadak.

**Amets.** Oharkabean emandako musuak.

**Aiora.** Bidea errazago egiten laguntzen dituzten keinu txikiak.

**Ihintza.** Gogoaren indarrez lortzen dira bi-zipenik politenak.

**Amets.** Badira lagunak inoiz ahaztu ezingo ditugun harreman laburrak, betirako lagunak.✳






### Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

### Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:
  - Logotipoa, papertegia...
  - Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
  - Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
  - Seinaleztapena
- Komunikazioa:
  - Prentsa bulego lanak
  - Komunikazio kanpainak
  - Mailing-ak...

# Sistema metriko hamartarra

Oier Etxeberria artista azpeitiarrak sistema metriko hamartarra izan du hizpide, 'Pure data (Hamar)' erakusketa lantzean. Donostiako Artzain Onaren katedraleko sotoan dago ikusgai.  A. Mutiozabal/Hitza

**D**onostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren Bake Ituna proiektuaren lehen kapituluak 1813. Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzearen barruan, Aldiriak izeneko sail artistikoa jarri dute abian hiru erakusketekin. Horietako bat Oier Etxeberria herritarraren *Pure data (Hamar)* da. Gainerako biak Maialen Lujanbionen eta Xabier Erkiziaren *Hegi, Egi, Egiak* eta Bulegoa z/b-aren *Denboraren Polifonia* eta *Hormaren kontrako ekoizpenak* dira.

Etxeberriak dioenez, proiektuan parte hartzeko deitu zitotenean, "baldintza bakarra 1813. urteko testuinguru historiko hori kontuan hartzea" zen. "Frantziar Iraultzaren ondoren, Euskal Herrian eta Europako beste hainbat lekutan abian jarri zen sistema metriko hamartarra ezartzen hasi zen;

## III DATUAK

III **Zer.** Sistema metriko hamartarra ardatz hartuta, Oier Etxeberriaren 'Pure data (Hamar)' erakusketa.

III **Eguna.** Abuztu osoan, irailaren 6ra arte, ostiral eta larunbatetan. III **Ordua.** 17:00-20:00. Orduetegi horretatik kanpo erakusketa ikusteko deitu 627-74 51 22 zenbakira. III **Tokia.**

Donostiako Artzain Onaren katedraleko sotoan.

III **Antolatzailea.** Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua proiektua.

bere erresistentziarekin eta tiriberekin, alegia». Erakusketa egiterakoan bi autore izan ditu oinarri: Policarpo Balzola matematikari irundarra eta Bergarako alkate eta karlista Joaquin de Irizar, *Memoria sobre el absurdo metrico decimal* idatzi zuena.

Erakusketa sistema hamartarretik abiatzen bada ere, ez da tematikoa. «Errealitatea ordenatzeko erabiltzen ditugun kodeei buruzkoa da: zenbakiak, alfabetoak, erritmoak... Hortik doa proiektua». Hori islatzeko arte diziplina guztiak erabili ditu Etxeberriak bere instalazioan; hala nola, irudiak, marrazkiak, margoak, eskulturak, bideoak eta musika. «Bideo-sorkuntza bat egin dut, eta Iparragirrek sistema metriko horren kontra idatziko bertso batzuekin abiatzen da», esaterako.✳

## III BESTERIK

**1** Sebastian Donean, bisitak Sebastian Donearen Eliza nagusian eta bertako elementuetan zentratuko da bisita, batik bat gututz berezia eta Euskal Herrian bakarra den Bakardadeko Kaperan. Sarrera 2 euro da eta, gutxienez, zortzi laguneko taldea osatu behar da. III **Eguna.** Abuztuak 10, 17, 31. III **Ordua.** 12:30. III **Tokia.** Sebastian Donearen eliza ataria. III **Antolatzailea.** Iraurgi Berrikuntza.


## 2 Emakumeen futbol kopa

Euskal Herriko III. Emakumeen Futbol Kopako finala izango da. III **Eguna.** Abuztuak 25 (igandea). III **Ordua.** Arratsaldea. III **Tokia.** Garmendipe futbol zelaia. III **Antolatzailea.** Euskal Herria Kirola.

## 3 Bidaia lurren-trean

Azpeitiko Urola Trenaren geltokia izandakoak trenmakina zaharrak eta tren munduari dagozkion osagai ezberdinak biltzen ditu museoan. Lurren-trenera igoz biribildu daiteke bisita abuztuan ere. Museoko bisita 3 euro da; tarifa murriztua 2 euro. Museoa bisitatzeko eta trenean bidaia 6 euro; murriztua 4 euro. III **Eguna.** Abuztu osoa. III **Ordua.** 10:30-14:00 eta 16:00-19:30. III **Tokia.** Trenaren museoan. III **Antolatzailea.** Trenaren Euskal Museoa.✳

III **Azpeitiko ekimenez informazio gehiago:** [uztarria.com/agenda](http://uztarria.com/agenda)



Sistema metriko hamartarrari buruzko hiru taula ikus daitezke *Pure data (Hamar)* erakusketan. III **Oier Etxeberria**

# tonbela

## uztarria

ASPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

**opariak:**

- Bi laguntzako 30 afarik gora
- Talasoterapiako zirkuitua
- Ite mozketak
- MP4ak, argazki kamerak...

**ordua:**

12:00-15:00  
17:00-01:00

**lekua:**

erdi kalean  
2 boleto  
euro batean

**zozketa azken egunean:**

- Netbook bat
- 2 laguntzako asteburua

**uztailak**  
25-28-30-31  
**abuztuak 1**

**bertan**  
azpeitikomerkatarielkartea

sanagustin  
kulturgunea

**Ukabi**  
informatika

INTZ

jai-alaia  
VIJES EROSKI  
BIDAIAK

**AMAIA TABERNA**

**MENDIZABAL ERRETEGIA**

**URTZI**  
taberna

IRAUZGI SASKI BALOI TALDEA  
IRAUZGI SASKI BALOIA  
AZPEITIA - ANKODIA - ZESTOIA

**GAROA**  
kafetegia

BAR  
**ORBEGOZO**  
ERRETEGIA

Mikel Unia  
Jatetxea

**Baigera 1**  
Jubilatuaren Ekurtea  
Rogar del jubilatza

**Baigera 2**  
Jubilatuaren Ekurtea  
Rogar del jubilatza

**ONDARBIDE**

**LAU-BIDE**

**Kutxillo**

FASTORRIA KAFEETEGIA

**Auntxa Euetegia**

**ETXAUN**

NEREAE

**Zarokoa**

**Ongi Elorri**  
Jatetxea

**IZARO**  
TABERNA

KIRURU  
TABERNA

**patxo**  
asador • erretegia

PUB  
**NEGUDA**

**MAZKUNE**

**Ametza**

Hotel **Agrup**  
Loyola

**ENXETA**  
TABERNA

**EGARA**

**AÑOTA**  
Nagardotegia • bidetxea

**juantxotxiki**  
TABERNA

**Viraye**

**JIN CLARCK**

**aliur** kafetegia

**EGUZKITZA**  
Kafetegia

**LARATZ**  
kafetegia

**adab**

**Bifara**

**Eduerne**  
ileapaindegia

**LAHARRA**

**INAXITA**

**GOATZ**  
KAFETEGIA

**Garai**  
garmintegiaren kooperatiboa

**KIMETZ**

**ELNEK**  
Kafetegia

**Zuha**

**anare**  
ileapaindegia

**IREDE**  
estetika

**MATXIN KESTOAK**

**BAR BOSTERLATE**  
GARMINDIPE

**OPERAIA**

**KORRALE**  
taberna

**XOXOTE**  
kafetegia

ERROTZA

**KIROLDEGIKO**  
TABERNA

**OÑATZ**  
taberna

**HARTZUBIA**  
garagardotegia

**Uranga**

**UROLA**  
Express

**Kantoi**

taberna  
**azpeitia**

**Ogi-Berriana**  
BERRIARRAZKO

Jone & Maikar

banka kooperatiboa



**LABORAL**  
kutxa



||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

K	A	U	K	A	Z	●	K	A	E	K	●
●	R	●	A	K	E	R	R	E	L	A	M
A	R	A	L	I	●	A	●	D	●	N	●
R	O	G	I	●	N	A	I	N	I	N	M
A	T	E	R	R	A	Z	I	B	U	Z	●
K	A	R	A	R	O	D	Z	I	D	E	B
R	●	R	A	T	E	L	E	K	●	L	●
A	K	A	T	I	●	T	I	●	●	●	●
K	A	R	M	A	R	M	I	A	R	M	A
●	T	●	U	●	S	●	A	●	●	●	●

HITZ GURUTZATUAK

A	I	A	R	L	O	R	K	I	R	A
R	■	U	A	T	S	A	K	U	S	A
R	A	R	O	R	O	■	N	I	N	I
A	I	A	Z	A	■	A	I	R	A	I
O	L	O	■	K	■	R	I	U	Z	I
B	E	A	■	A	R	A	T	A	E	A
N	R	■	N	Z	E	N	A	B	I	Z
A	R	■	E	N	Z	E	N	A	B	I
A	U	A	E	T	I	D	E	K	■	K
K	A	U	E	K	U	A	L	E	K	U

||| ZEIN DA? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Irailak 20 (ostirala) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN UZTAILEKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZEIN DA?

MIKEL AYERBE IDAZLEA

IRABAZLEA



Joseba Izagirre Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 152. irabazlea. Saninazioetan Uztarriak jartzen duen tonbolan jokatzeko 30 euroko txartela irabazi du. Argazkian, Izagirre.

ODRIOZOLA ARDOAK

Egin klik eta bisitatu gure denda birtuala

[www.catandovino.com](http://www.catandovino.com)

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16

Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103



# Pourrak baditu irabazleak

Xabier Azpillagak ('Kinttela' taldearekin) irabazi du Uztarriaren Tourreko porra, Jon Iparragirre ('Zierka') izan da bigarrena eta Iñaki Arzamendi (Eutsi Abraham) hirugarrena. 📍 Uztarria

Uztailaren 21ean bukatu zen 2013ko Frantziako Tourra. Horrenbestez, Uztarriaren Pourra ere bukatu da. Frantziako lasterketan garaipena Chris Froome txirrindulariarentzat (Sky Procyding) izan bada, Pourra'2013-ren sari nagusia Xabier Azpillagak irabazi du, *Kinttela* taldearekin. Aurtengo Pourraren podiumean bigarrena Jon Iparragirre izan da, *Zierka* taldearekin, eta hirugarren saria Iñaki Arzamendiarentzat izan da, *Eutsi Abraham* taldearekin. Lehen hiru sari nagusiez gain, beste hamaika apustugilek ere jasoko dute Uztarriaren Pourrak.

Aurtengo Uztarriaren Pourrak 156 parte-hartzaile izan ditu.

|||Aurte3ngo  
Uztarriaren Pourrak  
156 parte-hartzaile  
izan ditu

## |||INKESTA|||

**Galdera eefefee efefee  
efefee efefefefeeeee?**

Xxxxxx. %??,?

Xxxxxx. %??,?

Xxxxxx. %??,?

|||Oraingo galdera. Testua  
efefefefee deefefefee  
eeee efefee?

Azken sailkapena, saritu bakoitzari egokitutakoa, talde idealak eta txirrindularien puntuak Pourraren helbidean ikus ditzazke, osorik.

## Sari banaketa

Ohitura den bezala, Pourraren sari banaketa San Inazio bezperan izango da, uztailaren 30ean, 20:00etan. Uztarriak Erdikalean, Jabier Iruretak musutruk utzitako lokalean, duen festetako tonbolan egingo da sari banaketa. Saritu guztiek bertara azaldu beharko dute saria jasotzera.

Zorionak irabazle guztiei eta eskerrik asko parte-hartzaile denei, Uztarria Komunikazio Taldearen izenean.✳

## |||EFEMERIDEAK|||

# 1631

### Soldaduak ostatu hartuta.

Kapitain bat txartelak banatzen ari zen soldaduei, herritarren etxeetan ostatu izan zezaten. Ondorioz, horretarako inongo eskubiderik ez zuela adieraztea eta etxeetan soldaduak hartu zituztenei herriak ordainketarik ez egitea erabaki zuten.

# 1682

**Sutea.** Gauean, San Martin ospitalearen zati bat erre zen.

# 1841

**Joxe Buenabentura hil.** Joxe Ituarte *Zapaterito* toreatzailearen taldeko laguntzailea hil zen herrian, bezperan Erlete baserriko zezenak zaurituta.

📍 **Iturria:** *Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar* liburua.

|||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.✳

# www.uztarria.com

## azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak  
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...



|||sartu, eta hartu parte |||egunero **2.000** bisita pasa (6.000 orri)



# Ura

**H**idrogenoaren oxidoa da. Kolorerik, usainik eta zaporerik gabea. Urik gabe ez dago bizitzarik. Jaiotzetik zahartzarora, ura galduz doa organismoa. Jaioberrien pisuaren %85 ura da; helduetan, %60.

Inoiz ez da egarririk jasan behar. Ur asko edan behar dugu; egunean bi litro eta erdi. Munduan nahikoa ur edangarri egongo balitz eta egoki erabiliko bagenu, gaixotasunak %80 gutxituko lirateke. Nahiko tristea izan arren, egun urik osasuntsuena klorduna da, nahiz eta lixiba zaporea eduki. Lixiba eza dagoenean, larrialdiari aurre egin eta infekzioak sahisteko, urari %1 ardo beltza bota behar zaio edo litroko limoi zukuaren koilarakada bat.

Hiru iturri ditu organismora heltzen den urak: edariak, elikagaiekin batera sartzen duguna eta prozesu metabolikoen bidez kontsumitutako elikagaien hidrogenoa oxidatuz sortzen dena. Hala, koipeak erretzean, ur asko sortzen da. Esaterako, gameluen konkorrak egun askotan urik edan gabe irautea ahalbidetzen du, koipe asko gordetzen duelako.

Deshidratazioa gorputzeko ur falta da; hiperhidratazioa, berriz, ur gehiegi izatea. Gerra ondorengo esaldi bat datorkit gogora. 'Zenbat eta gutxiago jan orduan eta gehiago gizentzen ginen'. Nik esango nuke likidoak gehiegi pilatzen genituela.\*



Julian bereziartua

# ARANTZA LASA goxoki-saltzailea



- 1. Gozozaleago zein?**  
Helduak. Umeek baino genero gehiago daramate.
- 2. Gozoki aukera nola aldatu da?**  
Lau gauza genituen lehen, eta orain 40 txikle aukera.
- 3. Salmenta handiena?**  
Udan, kanpoko igerilekuak eragin nabarmena du.

- 4. Zer gozoki dago orain modan?**  
Tatuajea dakarten patatak. Opariagatik erosten dute.
- 5. Ume-negar asko entzuten al duzue?**  
Atean sartzerako gurasoak hasten dira: 'gauza bakarra esan dizut e!', esanaz. Ume batzuk ordu erdi pasatzen

- dute gozokiak aukeratzen.
- 6. Ixten al duzue inoiz?**  
Ez, hiletaren bat edo ezkontzaren bat ez bada...
  - 7. Alarma jarriz gero, gozokiak detektatzeko...**  
Lehenengo umeek lapurtzeko beldurra zuten; gaur egun esku azkarra dute oso.\*
- Ainitze Agirrezabala

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea      20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

**Amenabar**  
DENDA

gortinak, ohazalak, edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

**ostadar optika**  
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Arretxe, 17      Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-810664      Tel. 943-850445  
AZPEITIA      AZKOITIA

**KIMU BATEKO EKOLOGIKOEN TXOKOA**

HURBILDU ETA EZAGUTU !!

**Koh Tao**

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

**AIZPURU AUTOAK**

Landeta auzoa - Telf: 943 81 23 59  
Faxa: 943 81 22 81 20730 Azpeitia  
[aizpuru@aizpuru.net](mailto:aizpuru@aizpuru.net)

# Uraren memoria

30 eta 60. Urte horiek pasatu dira Azpeitiak bizitako azken bi uholde handietatik. Sanagustinen gogoan izango dituzte abuztuan. 📌 Mailo Oiarzabal

**S**ua eta ura belaunetik behera mantentzea hobe dela dio esaera zaharrek, ez arrazoirik gabe. Elementuak menperatzea, baina, ez da beti posible izaten eta orduan iristen dira komeriak, baita tragediak ere. 1983ko abuztuaren 26an eta 1953ko urriaren 14an urak edonoren belaunetatik oso goitik ibili ziren Azpeitian. Hogeita hamar urteko tartea dago bi data horien artean, eta beste hogeita hamarrekoa azkenekotik gaur arte.

Azpeitiak ezagutu dituen azken bi uholde handien 30. eta 60. urteurrenak gogoan, abuztuaren bukaera aldera, 1983koa gertatu zen dataren inguruan, saio berezia emango dute Sanagustin kulturgunean. Emanaldirako, alde batetik, 1953ko uholdeen argazkiak erabiliko dituzte; eta, bestetik, Azpeitiko Zine Klubak 1983koen irudiekin osatu zuen dokumental laburra.

Garai hartako zineklubaren kidea zen Ramon Etxeberria eta bera izan da abuztuko saio berezi horren bueltan lanean ari denetako bat. Pepe Azpiazu zenak abuztuaren 26ko uholde egunean eta biharamunean Azpeitian eta Azkoitian hartutako irudiekin osatu zuten film laburra. “Grabazioarena gauza espontaneo bat izan zen. Pepek [Azpiazu] kamera hartu eta grabatzen hasi zen. Irudi guztiak harenak dira –kontatu du Etxeberriak–. Zine klubean bideo-kamera bat erosita genuen eta uste dut kamera harekin hartutako irudiak

direla, ez super 8-arekin”. Irudiak eskuetan, “haiei lotura ematea” besterik ez zitzairen gelditzen. Hurrengo egunetako egunkarietatik ateratako datuekin hornitutako testua presatatu, eta Carmelo Otaegi kazetariak jarri zuen narrazioarako ahotsa..

## Oroitzapenak

Urteak pasatu egiten dira eta memoria lausotu, baina badira gogoan iltzatuta gelditzen diren irudi eta uneak ere. 1983ko abuztuaren 26 hartatik, “Pastorkuaneko irudia begi-bistan” duela dio Ramon Etxeberriak; tabernako jabeen estutasuna, eta “garajeetan ibai alde-ara dauden zulo haieetatik ura barra-barra” nola sartzen zen. “Arratsaldeko ordubiak inguruan

## Autobusa

||| 1953ko uholdeak aipatzearekin batera hitz egiten da beti autobusaz, La Guipuzcoanaren autobus hartaz. Urriaren 14ko iluntzean, Zestoako harrobiaren parean, Donostiatik Azkoitira zihoan autobusa urak oztopatuta ez atzera ez aurrera gelditu zen aurrena eta, laguntzera inguratu zirenen ahaleginak ahalegin, uholdeak eraman zuen azkenean. Bidaiari batzuek irtetea lortu bazuten ere, gehienak autobusean ito ziren, hamasei lagun, hamar azpeitiarrak. Azpeitian bertan beste hildako bat ere izan zen egun hartan.

han ur-jauziak zeudela ematen zuen. Behe hartan dauden soziedadeetan ere aberia handia egin zuen urak. Arkaitzan aurreneko argazki rallyetako artxiboak-eta gordetzen zituzten lokal txiki bat zeukaten garai hartan; argazki denak ezkutatu ziren uholdearekin”.

1983ko uholde hartan ibaiek bi hazi aldi nagusi izan zituzten, bata goizaldean, eta bigarrena arratsaldean. Horrela, “egun osoan batean eta bestean” ibili behar izan zutela du gogoan Kepa Ibarzabalek. Etxe Alai auzoan bizi zen, ordea, eta goizean kotxea hartu eta Arana kalera jaitsi zen arte ez zuen gertatzen ari zenaren berririk izan. Zinegotzia zen Ibarzabal, urte hartan bertan izan ziren hauteskundeetan osatutako udaleko kide. “Aldapa barreneraino ailegatu baino lehen konturatu nintzen urak atera zirela. Kotxea utzi eta Zabalaneok Aranaren zeukaten tailer txikiraino joan nintzen; orduantxe ari ziren kotxeak-eta ateratzen, eta han jardun nintzen, laguntzen. Goiza hala pasatu genuen, bati kotxea ateratzen lagunduz, besteari beste zerbait... Neu Udalean egon arren, artean berriak ginen, eta abuztua opor hilabetea izan ere bai”. Egunduko xehetasun askoz gehiago ez du gogoan Ibarzabalek. Hurrengo egunetan garbiketa lanetarako hainbat azpeitiarrek erakutsi zuten prestutasuna da gogoan duena. “Uholdeen ondorenean, Udalak erre-mintak jarri zituen, lanerako prest zegoen jendearentzat, eta erantzuna oso ona izan zen.



Goian, Foru Ibilbidea ibai handi bihurtuta eta, behean, Loiolako hiribidea eta inguruak. Biak, 1983ko uholdean.



**1.** Hilikutxak, 1953an. **2.** Plaza urak hartuta, 1953an. **3.** Madalena eta Soreasu aldeak gainezka egindako ibaiaren azpian, 1953an.



Hainbeste zikin eta zerrikeria zegoen, garbitzeko". Herri kaskoan uholdeen arrastoa erabat ezabatzeko pare bat aste behar izan zituzten; kaltetutako baserri bideak-eta bere onera ekartzeak luzeago jo zuen. Garaiko prentsaren arabera, mila milioi pezetako kalteak izan ziren Azpeitian uholdeen ondorioz.

### Ikasgaiak

Metereologiak bere zikloak dituela diotenei kasu eginez gero, orain 60 eta 30 urte gertatutakoak errepikatzea posible litzatekeela pentsatu daiteke. Gauzak aldatu egin direlako dio Ibarzabalek, "orain abisua ematen" dutelako. "1983an, behintzat, inork ez zuen espero halakorik gertatuko zenik. Baliabideak ere

ez ziren gaurko egunekoak". Uholde haien lezioak eraginda ibaien zaintzan eta garbiketan urrats handiak egin zituztela dakar gogora, baita azpiegituretan ere; Artzubiko zubi zaharra bota eta berria eraikitzea izan zen adibideetako bat.

Hala ere, orduko ikasgaiak ahaztuxe ez ote ditugun da Kepa Ibarzabalen kezka. "Gaurko egunean benetan harrিতa nago ni, ibaiaren erdian dauden mendi horiek ikusita; niretzako, kalterako dira. Ibaiak, urak, bere lekua bilatzen du, bere lekua behar du". Ibaietan berez sortzen diren aldaketek gain, gizakion zabarkeriak ere atentzioa ematen dio. "Kontzientziazioan ere asko falta zaigula ikustendut; natura eta natura eta natura jarduten

gara baina, gero, zer kontzientzia klase daukagu? Zeozertan huts egiten dugu...".

1983an urak Azpeitian eragindako triskantza handia izan bazen ere, kalteak materialak izan ziren soilik. 1953an, aldiz, uholdeak heriotzak eragin zituen. Donostiatik zetorren La Guipuzcoana etxeko autobusa urak eraman zuen Iraeta eta Zestoa artean. Barruan zihoazten gehienak eta laguntzera joandako beste batzuk ere han hil ziren; tartean, hamar azpeitiar. Ibarzabalek 7 urte zeuzkan orduan, Elizkalean bizi zen, eta duen oroitzapena etxetik ikusi zuen hilkutxa ilarada: "Hura oso tristeia izan zen. Hainbeste hildako ilaran... huraxe daukat nik buruan". Ura-  
ren memoria tristeia.✘

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarrria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11

## FARMAZIAK (ABUZZUA)

### EGUNEZ

1-3-4-6-8-9-12-14	2-5-7-10-11-13-15-19-21-24-25-27-30	16-17-18-20-22-23-26-28-31	29
Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 815974	943 811274	943 080258	943 811350

### GAUEZ

1-3-4-20-21-23	2-19-22-24-25		
Jaen (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).		
943 850660	943 851235		

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Abuztuaren 28an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Aralar	647 42 59 95
Hamaikabat	15 72 00

### SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Eskalategia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

### BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	
	943 08 06 88

## ORDUTEGIAK

**UDALETXEA** || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** || Astearte-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



## EMAN PAUSOA.

Indarkeria sexistaren aurrean  
baliagarriak izan daitezkeen telefonoak  
jasotzen dituen txartela moztu  
saninazioetako festetako programatik  
eta gorde diru-zorroan!

## GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

[www.uztarria.com/azpeitia/](http://www.uztarria.com/azpeitia/)  
autobusak

5-6-7-8-9-10-11-12-13-14-15-16-17-18-26-27-28-29-30-31	
Beristain (Azpeitia).	
943 811949	

# FERNANDO ALBERDI

Izozki-denda du Getarian

“Artisau-izozkiak egitea dun gure helburua”

Uda sasoiko gozagarri, azpeitiarraren izozkitegiaren ateak zabalik dira, uztaile erdiaz geroztik. 📌 Ainitze Agirrezabala

**K**risi betean, ekintzaile habil.

Pixka bat, bai. Kostaldean oraindik turismo aldetik lana bazagon eta, alor horri heltzea erabaki dinagu. Izozki-denda irekitzearen ideia ez dun izan nire kontua bakarrik, ordea. Nire emazteak eta familiako jatekidea diten Getarian, Politena, 1968tik, eta osagarri bezala zabaldu dinagu izozki-denda. Duela lau urte, 24 orduz irekita dauden bi *vending* makina jarri nitinan, Getarian halakorik ez zego-elako, eta funtzionatzen diten.

**Zer harrera ari duk izaten Dona-Doni?**

Harrera polita. Gainera, izozkiak eskaintzen dituen gozotegia bai, baina izozki-dendarik ez zagon. Eta jendeak nahi zinan herrian halako izozkitegi bat edukitzea. Aurrerantzean, astesantuetan zabaldu eta iraila bukaera arte izango dinagu irekita.

**Eguraldia, faktore garrantzitsua...**

Bai, horixe! Eguraldi txarrarekin ere jaten dun izozkia, baina onarekin jende gehiago dator kostara, izozkia jateko ere gogo handiagoa izaten dun eta salmenta areagotu egiten dun.

**Helatuak egiten ere ikasi duk.**

%100ean artisau-izozkietara dedikatu nahi

geninan, eta Karlos Arguiñanoren Aiala eskolan ikasi dinat, Karlos Arrivas zarautzarrarekin. Izozki-dendako aholkularia bera dun; negozioa martxan jartzen eta errezetak egiten lagundu zigun. Estatu mailan ospe handia din Arrivasek. Ikastaroaren helburua dun artisau-izozkiak egiten ikasi eta osagaiak manipulatzeko-teknika kontrolatzeko gai izatea.

**Zer zapore saltzen dituk gehien?**

Jogurta bere bariedade guztietan, eta klasikoak: txokolatea eta limoia. Modan daude gustu bereziak ere, donuts, cookies...

**Zein duk etxeko espezialitatea?**

Ez dinagu. Jendeak eskatuko dizkigula uste dugun zaporeak ari gaitun egiten, momentuan. Denborarekin saiatuko gaitun zeozer berezia ateratzen.

**Getaria-Zarautz oinez egiten duten askok, Zarautzen helatua erosita egiten dituk bueltako bidea. Zarautzarririk inguratu al da zuenera?**

Zarautzar asko etortzen dun Getarira oinez, eta ohitura handia diten pintxo txakolinarekin hartzeko. Orain, ondo legoke, izozkia ere jaten hasiko balira.✘



1

1. Fernando Alberdi, berak ekoiztutako hiru bolako izozkia jaten. 2. Getaria, kale nagusian dute izozki-denda. 3. Izozkiak saltzen, dendan.



2



3

# Non gogoa

**Z**erbitzu publikoak defendatu', elastikoa eman didate jaurlaritzan, lana tarteko bertara joan naizenean. fuksia kolorea da, beltzean ditu letrak, eta guraize batzuk biribilean sartuta, debeku ikurraren azpian. murrizketarik ezetz, alegia. krisitik krisira, eskuartean ditudan paperetara joan zait pentsamendua.

joan den mendeko 30eko hamarkadan naiz, latinoamerikan. estatu batuetako amerikarrena zen kafea, beraienak bananak ere. 1929an, krisia. krak! egin zuen new yorkeko burtsak eta kapitalismoak. krak! izan zen kariben ere. hondoa jo zuten kafearen eta bananaren prezioek, erreka jo zuen salmentak. ez zegoen nekazarien beharrik. soroetatik bota egin zituzten. langabezia nekazaritza alorretan eta hirietan zabaldu zen, bata bestearen atzetik etorri ziren grebak. bankuek maileguak eten zituzten, inbertsioak eta gastu publikoa ezerezean utzi zituzten, funtzionarioen soldatak erdira jaitsi zituzten, baina haien lanordua handitu. honduras, guatemala, nikaragua... diktadoreak etorri ziren. jorge ubico, guatemala. maximiliano hernandez martinez, el salvador. tiburzio carias, honduras. anastasio souza, nikaragua. egoera bere onera ekarri beharra zegoen, washingtonekin adiskidetu izan beharra. jendearen ondoez, haserre eta ezinegona baretu behar zen horretarako. herritarren odola.

augusto zesar sandinok ez zuen amore emateko asmorik. gerrilla osatu zuen, lurra zuen borroka, nekazarien haserrearen hotsa zen. zazpi urtean estatu batuetako amerikarren kontra borrokatu zen. armada txiki bat, hamabi mila atzerritarren eta guardia nazionalaren –omen–, kontra. harriz betetako sardina-latak zituzten granada, fusilak etsaiei kendutakoak zituzten, aihotzak lanekoak, botarik ez eta caite izeneko larruzko zerranda bat zuten oinetako. ez itsas-armadaren suak, ez hegazkinen bonbek txikitu ahal izan zituzten sandinistak. horiekin batera, lanean ari



|||||||miel a. elustondo|||

|||hala ere, gaztetako urteak gogoratzen zituen, triste, urrezko txanponak faltsutzen zituen garaia

ziren associated press eta united press berri-agentziak. 1932an esan zuen sandinok: 'ez naiz luze biziko'. handik urtebetera, bake-ituna. managuara deitu zuten sandino, bilerara. bakea sinatzera bidean, segada. sandino akabatu zuten. hiltzailea, anastasio somoza, armada-buru. laster zen nikaraguako buru. eeroan esan zuenez, estatu batuetako enbaxadoreak asmatu zuen enboskada hura. hogeita bost urtez agindu zuen somozak nikaraguan eta, ondoren, semeak izendatu zituen oinorde. balorearen gurutzea, bereizkuntza saria, merituaren lehendakari domina eman zizkion bere buruari. sarraskiak eta ospakuntzak antolatuta zituen soldadua, sandaliaz eta kaskoz. nikaraguako kafe-ekoizle nagusi egin zen, eta ganadu pila handiaren jabe. hala ere, gaztetako urteak gogoratzen zituen, triste, urrezko txanponak faltsutzen zituen garaia.\*



# HIBETUZ

KALITATEZKO OHEAK OSO PREZIO ONEAN

ETA GAINERA, ZURE NEURRIRA EGOKITUTAKO KUOTEKIN FINANTZATUKO DIZUGU



ABUZTUAN ERE HEMEN IZANGO GAITUZU,  
ZURI LAGUNTZEKO PREST.

Damaso Azkue Plaza, 1 behea  
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)  
943 810147 - 689360822



[www.laguntzateknikoak.com](http://www.laguntzateknikoak.com)





# innovadental

hartz-klina  
AZPEITIA



## ORTODONTZIAN *adituak*



Merkatuan dauden **teknika aurreratuenekin** haurren eta helduen **hartz posizioa** zuzentzen dugu.

16 urte bitarteko umeentzat, kontsultatu gure deskontuak enpaste, endodontzia, radiografia eta garbiketetan.

# innovadental

Bisita gaitzazu:

**José de Artetxe kalea, 5**  
(ambulatorioaren ondoan)  
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:

**943 02 59 55**

*Eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe*

*Ondo pasau festatan!*